Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ubide



Aurkibidea

Udalerria: Ubide

Sarrera



Bizkaia hegoaldean kokatzen da Arabako mugatik gertu. Ubide, Gorbeia mendira igotzeko ohiko abiapuntua da. Zubizabala erreka txikiak herria zeharkatzen du. Erreka honen albo batean herriko erdigunea kokatzen da, San Juango auzoa. Zeanuri eta Dimako udalerriekin egiten du muga, hegoaldean Legutioko udalerri arabarrarekin eta Undebe ibaiarekin, ibai honek Zigoitia eta Ubide banatzen ditu, ekialdean Otxandio eta Dimarekin egiten du muga. Ubide Zeanuriko elizatearen auzoa izan zen XVI. mendean banandu zen arte. Herriaren jatorria garai bateko burdinoletan dago, hala nola Zuazola, Aurtenola, Sartenera eta Ubide bera. Horrez gain, Gaztela eta Bizkaiko jaurerriaren arteko merkataritza igarotzen zen bide garrantzitsu baten ondoan egoteak herriaren garapenean lagundu zuten.

- **Biztanleak**: 152
- **Euskaldunak**: %61,18

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **64**
- Transkribatutakoak: **61**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **64**

Proiektuak

- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak

Hizlariak



Santa Abasolo Etxanobe (1910-2012)

Ubideko kale-etxe batean jaio zen. Aita ubidearra eta ama Mañariakoa ziren. Hamar seme-alaba izan zituzten, Santa gazteena. Txerri bat hazten zuten etxean, behi bat ere bazuten etxerako esnea izateko, eta baita oilo batzuk eta ortua ere. Ubideko eskolan ikasi zuen, elebitan. Ramón Delgado burgostarra eta doña Juana Elorza nafarra izan zituen maisu-maistrak. Gerra denboran Frantziara ihes egin zuen bere senide batzuekin, Peyrehorade-ra. 40 urte arte aita zaintzen geratu zen Ubiden. Gero Eskoriatzara joan zen bere hiru ahizparekin senidea zuten abade baten etxera, eta bertan bizi izan zen ordudanik. Eskoriatzako Ganuza familiarekin harreman estua izan du beti. Elkarrizketan Santaren ilobak Mari Karmen Arrieta eta Pedro Lasagabaster egon ziren.



Patxi Alaña (1961)



Felisa Artola Ibargutxi (1923)

Ubiden jaio zen, Etxebarrigoikoa izeneko baserrian. Baserri etxe handia zen hura, labrantza askokoa. Gurasoak ere Ubidekoak izan ditu Felisak. Zazpi urterekin umezain joan zen Ubideko beste baserri batera eta gero Otxandion ere ibili zen umezain. Baserriko kontuez hitz egin genuen berarekin egon ginenean, gerrakoez eta umezain ibilitako urteez, besteak beste. Mari Bengoa lagunarekin batera egin genion elkarrizketa.



Maria Teresa Bengoa Ureta (1922)

Zeanuriko Undurragan jaio zen. Amaren familia Undurragakoa bertakoa zen eta aita, ostera, San Pedrokoa Gopegikoa. Aita arotza izan zuen eta gurdiak egiten zituen orduan. Jaio eta egun gutxira Gopegira eraman zuten Mari eta bertan eman zuen gaztezaroa. Gopegitik sarri joaten zen Ubidera eta baita Otxandiora ere erosketak egiten. Baserriko kontuez aritu zitzaigun Mari berarekin egon ginenean, gerrakoez eta umetako ibilerez, besteak beste. Felisa Artola lagunarekin batera egin genion elkarrizketa.



Cristobal Ibargutxi Barrondo (1922-2012)

Abelintxu Olano Olibares (1932)



1932an jaio zen Ubideko Murueta baserrian. Ama Zeanuriko Altzustekoa zen eta aita Ubidekoa bertakoa. Bere aita Gorbeiako artzaina zen. Bost neba-arrebatatik bera da gazteena. Beti bizi izan da Ubiden bertan, bertako etxe ezberdinetan, gerra sasoian hilabete gutxi batzuetan kanpoan egon zen garaia izan ezik. Lemoako Errekalde auzoko Julio Iturriozekin ezkondu eta bi seme izan zituzten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Ubiden jende gazterik ez

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/002
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:01:20. **Bukatu**: 00:02:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Abelintxu umea zenean, Ubiden jende asko bizi zen. Orduan ez zen gauez irteten, eta festak eta Gabonak ilusio handiarekin bizitzen ziren. Jende gazteak bizimodua herritik kanpo bilatzen du gaur egun, eta Ubiden jende nagusia bakarrik geratzen da. Erosketak egitera eta medikuetara ere, Ubidetik Gasteizera joaten dira.

Transkripzioa
- Eta Ubide, ze akordu dekozu zuk umetatik eta...
- Ba umetan hemen jente asko egote zan, asko, asko bai asko. Ta etxe bakotzien eote zien umiek be ba, ba... sei-zazpi etxe danetan egote zien. Ta orduen e kalera ba ez gendun urtetan, olgetan bai, baia gero gabien ta pentsau bez urtetarik, gabien da pentsau bez. Ta fiestak eta haundixek ite zien ta Gabonetako ilusiño bat eukiten gendun, Gabonetarako ta, puf! Ta bueno. Ba gero ba hemen jentie ba ezkondu ta hemen ezta egon biherrik be ta jun in biher hainbaterantza. Nire semiek be, ba honen aite be joan da Gasteizera, joan biher, hemen ezta egon, biherra eiten dau biherra, baia andrie be Bitorixekue ta hara jun zan ta gero jente gitxi dau oantxe, dana zaharrak, zaharrantzat bakarrik. Sano gitxi dau.

-Jentiek zer eiten dau, Gasteiz parterantz tiretu?
-Bai, Gasteizerantza. Bilbora baiño Gasteizerantza. Gu ba erosketak iten da be ba zera joaten gara Gasteizera e? Ta medikuana be bai, danera joaten gara. Ba, Bilbora joaten gara hortoko gauza ofizial derrigorrekon bat edo, baina ostantzien ez.
-Ta Arratire ta ez?
- Arratire ba ez, hor ba jentie juten da Igorrera be e konprak-eta iten, baia ba nik ba Igorrera baino Bitoritik eiten doaz konprak eta joaten nazenien Bilbora joaten naz artezien, hor parau barik.

1.2. Abarkak, eguraldi txarra eta trailak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/024
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:56:14. **Bukatu**: 00:59:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Abarkak lehortzen baziren gogortu egiten ziren. Orduan janzteko busti egin behar izaten ziren. Abarka zulatzen zenean, txatal bat jartzen zitzaion. Eguraldi txarrarekin gomazko abarkak edo botak janzten ziren. Behi larruarekin egiten zituen aitak abarkak. Ardi beltzen ilearekin, berriz, abarkak lotzeko trailak.

Transkripzioa
- Ta gero horrek siketu eiten die, ta horrek bustiten imini biher izeten die bustiten jazteko modun nahi dot esan, ze ostantzien egoten die gogor-gogor ta. Ostantzien egoten die gogor-gogor. Ta bustiten imini biher izeten die ba denbora sikuekaz ta, ba erremojetan izten die gabien, atzera jazteko. Ta gero, ba horrei be zulue eiten jakie, ta gero orduko denboretan ba zuluen ipinten zan txatal bat, honan, honango narru txatal bat han azpixen honan imini, ta han pegauta morun plantaten da, hantxe ba ibilixen-ibilixen, ta holantxi. Ba harek ba honan azal-azalak die ba denbora onetan ibilteko, ta gero ba gomazkuek denbora txarretako ta botak eta, horrek.
- Ta gero saldu edo eiten abazen edo etxerako bakarrik?
- Ez, etxerako bakarrik.
- Etxerako bakarrik. Ta zeren narruegaz eiten abazen?
- Behixena. Behixena.
- Behixek eduki zenduezan?
- Ba erosi-edo, ez dakit ba nik nondik hartzen auezan. Behixek ez geuk hil ez genun iten, gero bai hilten izen dogu behixe, baia orduen ez. Ba zuzendukoan, ez dakit ba erosi-edo, zelan eiten zan! Ta horretxek umientzat eiten direnan moduen, bardin-bardiñek. Bardin-bardiñek, baia gero harek ba gogorrak izengo zien-ta, ba busti in behar zien /bizien/ jazteko modun egoteko, gogor ostantzien-ta. Ta erremojetan egote zien, uretan. Ta traillak iten die ba bixurtute, hemetik haraño plantau iten ta handik honaño ta ba ardixek be baltzak egoten zien batzuk, ta ardi baltzakaz ba baltzaz ba haxe ulie baltza, tintau ta ezer ein barik, ba baltzaz ite zien tralla baltzak. Ardi baltzan uliaz.
- Trallak kordelak die?

- Bai, bai. "Tralla" esaten jako abarkienai.
- A, bale.
- Ez dozu jakin?
- Ez.
- Bueno ,ba
- Nire etxien kordela.
- "Kordela" esaten dozue zuek?
- Bai, abarkienari bai.
- Ba hemen trallie esaten da. Ta nire aitek iten aurezan ba holan ba abarkak eta dotore imintie geuza bat da, hemen hau holan traillie, holan, buelta ta buelta, ilaran-ilaran holan ez desordenaus, artezien honan, artezien-artezien bueltak ba batzuk emonda, honan, bueltak. Baia ez holan bata bestien ganien, dotore samar honan ilaran- ilaran.

1.3. Igandetarako arropak; barruko arropak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/026
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 01:01:20. **Bukatu**: 01:03:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Igandetarako arropa bat izaten zen urte guztirako. Barruko arropak felpa edo "punto inglés"ean eginak izaten ziren. Elastikoen botoiak lehenago alboan kokatzen ziren; geroago ordea, erdian. Neguan felpazko galtzontzilo luzeak erabiltzen ziren. Udan berriz, laburrak, telazkoak.

Transkripzioa
- Besterik ez zanien egon.
- Ba haixe, haixe. Domeketako beti egoten zien domeketako barrixek batzuk eta ba udan ta neguen harexekaz! Jertsie ta, frakak be bardiñek zien ta alkondarie be bai ta ba txaketie be bai, yasta, danak bardiñek! Ez zan egoten ez hotza eiten dauenerako ta ez berue eiten dauenerako, ba jertse loditxuaun bat egongo zan ta ba alkondarie be negukue ta udakue bardiñe zan ta ba txaketie be bai ta ba danak.
- Ta barruko erropak zelakoak izete zien?
- Ba orduen zaharrantzako holan felpazkuek ibilten aurezan, ta punto ingleskuek. Punto inglesa ez zendun ikusi be ingo, oin ez da ikusten! Oañ ezta ikusten, felpie bai, baia punto inglesa da ba lodixek zien ba bat aldrebes ta beste bat, bat aldrebes ta beste bat e deretxo daukon puntue da, baina gogorra zan, sendue, sendue. Ta kamisetak botoiek eukiten aurezan hemen, albuen apur bat, gixonenak eta be. Ta gero berandu erdixen eukiten aurezan. Ta kantzontzilluek be ba nire aitek be ibilten aurezan honaiñokuek, holan gero, felpazkuek.
- Ta udan holakoak jazten bazan be bai?
- Ez, ez. Udan ez, hori neguen.
- Udan laburrek.
- Bai, laburrek, bai. Telazkuek.
- Gaur egungoen antzekoak edo bestela tamaiñuz?
- Ba haundixauek, haundixauek zien. Honaiñokuek, honaiñokuek.

1.4. Aita Gorbeiako artzaina

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/037
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 01:25:20. **Bukatu**: 01:28:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Aita Gorbeiako artzaina zen. Ekainean ardiekin Gorbeiako gurutze ingurura joaten zen, Domu Santuak arte. Belarren kalitate ezberdinen eta ardien gaitzei buruz hitz egiten du. Ardiak sanoago egoten omen ziren mendi goian. Udaran Abelintxu gazta bila joaten zen astoarekin Gorbeiara aitarengana. Domeketan artzainak Gorbeiatik Ubidera etortzen ziren meza entzutera.

Transkripzioa
-Eta zure aite pastorie zala esan dozu.
-Bai, bai, bai.
-Ta ze eiten eban, denbora asko mendixen? Edo…
-Bai, bai jute zien badakizu ze eiten auren? Aber, jun udabarrixen ba azurixek eta egote zien martixen ta aprillien. Ta gero, ba joaten zien hemetik Gorbeixera, hara kurutzie dauen inguru-ingurure, juten zien ardixek han egon daitezen sanuau. Ze hango bedarra zala hobie. Ze hemen behien ba bedarra abundantiaue dau, baina zingirak eta dauz, badakizu zer dan zingirie? Bai.
-Lakua, lakue ez?

-“Como”, zingira “es como muy aguau, y hierbas allí”. Bai, ta ba harek bedar ustelak direla txarrak. Ta gero iten jakie “kokaldie”, “kokaldie en término de de pastores dicen”. “Kokaldie es como, como le salian un bulto aqui, como una tuberculosis o algo así”.
-Ardixeri?
-Ardixeri. “Pues así como tuberculosis” beste bat izingo zan. Ta gero hil iten zien, makal-makal. Ta gero hori azartau ez iteko, juten zien hara gora ba ardixek sano egon daitezan. Ta gero geruau pastillak emote otsiezan hemen behien egon arren ez jakixen etorri ba hori gaixue. Ta gero, gero geruau be bai juten zien baia gitxiau, hara Gorbeixako kurtzen ondo-onduen e! Ni joande nau hara udan aste guztixetan ba gaztaiak eske astuaz e! Ni ta beste neska bat juten gintzezan, bere aite be han egote zan ta txabolan, ta egoten zien. Jungo zien junio inguruen ta ba etorriko zien Domu Santu egunien, “de vuelta!”. Ta harek egote zien han aste guztixen. Ordura arte aste guztixen hantxe, ta gero etorten zien gaztaiek ta inde nire aite be ta beste batzuk be mezetara, hamaiketan egoten zan mezie ta. Hamaiketarako etorte zien mezetara goizien bai, handik. Gaur etorko zien bai, handik. Goiz-goizetik jaikite gaztaiek in ta gero mezetara hamaiketarako etorte zien domeketan, ta gero ba joaten zien atzia, ba amak ipinte otsien ba akordetan naz ba afaiteko edo ba tortilla apur bet edo ipinte otsen bokadillue, ta ba joaten zan aite. Ta gero ni joaten nintzen ez dakit ba zein egunetan, aste bitartien, gaztaiek eske, astuaz. Ta han egoten zien. Orduntxe arte!

1.5. Artzainek txaboletan egiten zuten lo

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/038
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 01:28:04. **Bukatu**: 01:30:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Abelintxuren nebak jarraitu zuen artzaintzan, baina ez zuen mendian hainbeste alditan lo egiten. Zeanuri eta Altzustako artzainak ere egoten ziren Gorbeian. Txaboletan lo egiten zuten, txilar-koltxoietan etzanda. Mantak bazituzten, baina izararik ez.

Transkripzioa
- Ta gero ba oin oaingo pastoriek holan gitxiau egon die, ze ba gero nire neba be pastore ibilten zan ta, baia hara gora barik beheratxuau, beheratxuau, ta ha ez zan egoten han lo eiten ta gitxiau, apur-apurren baten bai, baia gitxiau. Ze oin horrek botikak emote otsiez, ta horrek gaixuek ez daurez harrapetan. Ta oin e pentsue eta sano emoten jakie ta oin be ardixek eta lodi ta dauz ta holan, holan, bai.
- Eta, nungo pastoriek izete zien Gorbeixen egoten zienak?
- Ba Zeanikuek be bai! Zeanikuek be bai, hor Zanin be egon die Ipiñaburun ta ba hor beherantzau be bai ta Altzusten be bai, ta harek egoten zien hor goixen. Lanbreabeko batzuk be bai ezautu noazen.
- Eta han, lo non itxe eban?
- Txabolan. Txabolan, Ta lehen-lehen eukite aurien ba txabolie holan ba ohie, ohie be horrekaz, iñerrak badakizu zer dien? Basokuek?

- Zertzuk?
- Iñerrak.
- Ez.
- Eiten dienak horrek, zera, isuski latzak “de barrer” lehen? Horrek e lehen egote zien ba, barrenderuek edo etxietan ibilte zien holan isuski haundi batzuk, baina ba holan, iñerrazkuek, “como de leña!”. Ha da. Iñarrie iminte auren “de colchón, abajo”. Ta gero manta bat azpixen be bai ta ba yasta. Ta ba gero, geruau ba ia koltxoie euki izen daurie. Koltxoie eta izerak eta danak.
- Ta haren ganien.
- Bai, bai. Gero geruau nire nebiek eta be koltxoie-ta. (Zer, karterue izin da, ala? Ez dau jo ba ateik sekule.)
- Andra bat
- Gaur berrixe izin dalako
- Ta, ba, gero, geruau euki izin daurie koltxoie eta izerak ta manta bat edo bi edo dana dalakue. Neu akordetan naz, hortoko azultxo batzukin in notsiezan neuk ta yasta, makiñan pasau ta yasta. Bai. Baia lehen ez auren eukiten izeraik be ta lehenau lehenauko denboran. Ta ha iñarrie “de colchón”. Ta gero ba mantie han. Mantie ba loditxue-edo, ez dakit nik ze izengo zan. Ta gero ganetik mantie ta yasta. Ta geruau-geruau izarak be euki izan dauriez.

1.6. Artzainen jatorduak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/039
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 01:30:33. **Bukatu**: 01:32:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Artzainak txabolan taloak egiten zituzten, gero kirtendun aska txikitxo batean esnearekin jateko. Babarrunak eta urdaia ere izaten zituzten txabolan. Azeriak itotako ardien okela, talo-palan erreta jaten zuten artzainek.

Transkripzioa
- Ta han ze eukite auren, suetie?
- Sue hortoko sue, hortoko sue. Hortoko burriñe ta ezebe barik. Ta gero taluek eite aurezan. Ta taluek zuk ikusiozu hor euskal fiestetan edo hortokon baten, hortoko askie?
- Askie, ze aska?
- “Pues, un empresebrito pequeño, pequeño de madera”, horiek eite aurezan, ta han iten auren ba esnie, esnie egosite handik, ta hara bota ta taluek be hara bota ta jan handixek, “en vez del plato”. Kostumbriek. Aska txikitxo bat oleskue. Ba holan kajoi baten luzangatxue, ta gero aurek eindako kontue zan. Ta gero ba, ba holan hari olai zulue ein erdixen, erdixen, ta gero astatxo bat be eukiten auen holan berena, hobatutekue, ta han eite aurezan taluek ta gero esnie egosi ta hara bota ta handik jan, pastoriek hori eiten auren lehen-lehen-lehen; gero, nire nebien denboran-ta, ez, ez. Ta gero ba babak ta ipinte aurezan lapikuen ta ba jan. Urdaixe

ta, holako kontu batzuk. Ta gero, ba inoiz ardixe be, orduen azeixek egote zien asko, ta azeixek ta egote zienien, ba igual ba zeretik erdi hilde ta itxite aurezan ardixek ta zamatik. Ta gero ba zartanik eta ez auren ibiliko ta nik zer dakit, ta talo parie eukite aurien, talo parie badakizu zer dan? Taluek hori, redondo-redondue baina oin iten daurezan fiestetan han ganien erretan daurez han mahaixen moduen, baina orduen talo parie da ba holan burdinezko asta bat ta gero ojalata erredondue. Talo parie. Ta han erreta aurezan taluek eta gero han eite auren, zera okelie izterra-edo, zerena, ardixena, ardixena, ba hantxe, ata tajadak eta hantxe erreta aurezan, ta ederto"¡A la plantxa!". Oin dabiz " a la plantxa", ba orduen holan!
- Karo, inungo koipe barik.
- Koipe barik, bai.

1.7. Gorbeiako gaztak Usansolora

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/041
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 01:35:31. **Bukatu**: 01:38:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Garai haietan albaitariak ez zituen ardiak artatzen. Behiekin ere geroago hasi ziren albaitariak. Aitak Gorbeian egindako gaztak Usansolon saltzen zituzten prezio hobeagoa ordaintzen ziotelako. Abelintxu eta auzoko beste neska batek, astero joaten ziren astoarekin gazta bila Gorbeiara. Gazta egiteko esnea asunetan iragazten zen.

Transkripzioa
- Ta zure aitxek ta eukiko aurien hemen parajien betenaixoren bat-edo. Edo ez, eurek ?
- Orduen ardixentzat ez zan egoten. Ez, ardixentzat ez.
- Ganaduentzat eta bai.
- Ba gero behixentzat eta geruau-geruau akordetan naz ni, geruau-geruau. Baina ardixentzat ez, ez.
- Eurek eitxen abien dana.
- Bai, in biher, in biher, bai.
- Eta ze eitxe eban, esnie saldu edo gaztaiek?
- Gaztaiek, gaztaiek. Aitek gero, gero joate gintzezan ba, hemen be gitxiau pagetan auren ta hemen pastoriek asko ta ba Usansolora joate gintzezan hango denda batzutara gaztaiek salduten. Ta han diru apur ber honantza ekarri ta kito, besterik ezebez.
- Ta gaztaie non eitxen eban?
- Gorbeixen. Ta joaten nintzen ni, Gorbeixera, ba astien-astien gaztaiek eske, beste neska bat be bai, bere aite han egote zan ta astuen bakoitxak bere astuen juten gintzezan-ta. Ta ba hor hemen zelaixen hara aldatza hasi arte oiñez be igual, ta gero handik, edo hemetik haraño ba asto ganien. Baia gero erramak egote zien, ta asto ganien ezin jun, ze erramak burue apurtu eingo otsuen!
- Ta gaztaie zelan eitxen eban zure aitek?

- Ba batu ta gero ba iminten da irizi, irizi zuk ez zendun ikusiko asunekaz. Ba nik asunek be batu doaz neuk be. Ba irizkixe ixte zan hortoko ojalatazko honango haunditxue, honan, honan. Ta gero eukiten eban tubo bat honangoxe modukue behien, behien. Ta gero, hor tubuen sartze zien asunek, ra!, honantxi. Ta irizten da ederto, ederto, ederto. Ta asunek hemen etxe onduetan bakotxerako topau in biher izeten die. Bakotxerako asunek topau in biher izeten dire. Ta ba han irizi, ondo baño ondo eiten da? Ta sekule ez zendun jakingo hori? Bueno asunekaz. Ta gero bakotxien-bakotxien ipinten jako berrixe asunek, ta han gelditzen die, asunek zelan gorantza dauzen holan, han gelditzen dire danak, lohi txikixek be bai, danak ondo e? Ta holan esku bete, haxe zulue estu-estu barik, ba estu xamar iminteko beste asun biher da /bida/. Ta gero, ba ha ipini ta ba irizi dozu.

1.8. Gaztagintza

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/042
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 01:38:13. **Bukatu**: 01:41:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Esnea asunetan iragazi ondoren, bildotsaren legarra eransten zitzaion eta dena ondo nahasten zen. Gaztagintzaren prozesu osoa azaltzen du.

Transkripzioa
- Ta irizi dozu, ta gero irizi ta gero, ba botatzen jako lagarra, lagarra badakizu zer dan? Ta “iagarra” ba azurixena, benetakue ez botillakue. Zuk ikusi dozu azurixena benetakue? Azurixen tripie, esnie edan dauena, hil dozu gaztetan ta han dauko esnie bakar-bakarrik. Ta gero handik kentzen jako txatal-txatal bat, ta ipinten da uraz ta holan iten jako atzamarraz bigundu deiten. Esnie siketu arte ezin lei usau. Ta holan iten jako ba katilluen edo dana dalakuen, ta ha iten da ba holan kolorie esne antzekue edo erdi lohi, holan, holangue. Ta gero, ha be, handik bota irizetik ta yasta. Ta gero, ba errebolbidu eiten da ta ba yasta, hartuten dau gatzatue. Ta gero ba gatzatue hartu dauenien, iten da ba honan errebolbidu makila batiaz, makila batiaz, gorostixaz, ez dait zer jakon izena be, oantxe ez naz akordetan. Gorostixe dau honan, honan gorostixe, honan, honan egoten da. Ta honek kimuok iten jako buelta honan, buelta honan. Ta hemen lotute imini. Honek atzamarrok hemen lotute imini, hemen. Ta hau holan ba polite izeten da, ta ba daukozue holan zera inde holantxe honen moduen, baia aldrebeseta ipinite. Ta hare makilie holan errebolbidu eiten dozu ta ha sartu daien. Ta gero eskuekaz holan zapaldu, zapaldu. Ta eskuekaz zapaldu, ta eskuekaz zapaldu ta gelditen da behe-behien dana halan, ta gero ba partidu eiten da honan zatixek hartuteko honan kutxilluaz, ta gero gazta-otzaran sartzen da, ba holan ite zan lehen hemen baldie hementxe ipini bertan, nik gaztaiek sarri in dodaz, baldie hementxe imini ta horra botaten dozuz ta zapaldu-zapaldu, apur bat bigundu eiten dozu atzamarrakaz holan ta ba hona botatzen dozu ta holan apur bat estutu ta ba ure urteten da horra balde ezkiñan. Ta ba gero buelta ematen jako, ta

buelta emon ta beste buelta bat edo bi-edo, honantxe apur baten, ba gaztaie bakotxa ba hogei bat minutu ein biherko da /biko/ da bakotxaz holan eskuz iteko, honan. Ta iten dozunien apur bat ba yasta, itxiten dozu inde ta yasta. Ta gero ba beste bat, ta gero beste bat, hiru, lau edo bost iten bozuz ba yasta. Ta gero gatz apur bat botatzen jako ganien. Ta gero buelta-edo, ba hurrungo egunien-ta, holan iten die gaztaiek. Ta gero siketuten ipini-edo, ba holan oletan iminten die, holan. Ta ba sue badau ba gero ke apur bat be eiten jakie ta, ba gaztaiek freskue biher dau /bidau/ ondo ein daitezan, fresko. Haitik oin ipinten dauz hor fresko lekuetan, ta holan.

1.9. Tranbian jendea, erosketak, eta txahalak ere bai

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/045
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 01:46:07. **Bukatu**: 01:49:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Bilbo Handiko lantegiak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena**: Bilborako tranbia Zeanurin hartzen zuten goizeko seietan. Arriaga antzerki inguruan geratzen zen Bilbon. Jendez eta poltsaz lepo joaten zen tranbia, eta txahalak atzeko bagoian eramaten zituen. Seietan irtenda, jendea zortzietarako lanera ailegatzen zen Bilbora. Euskalduna lantegira joaten zen jende asko lanera.

Transkripzioa
- Eta tranbia zuek, nun hartzen zenduen?
- Zeanurin. Zeanurin, ba goizeko seiretan-edo, ez dakit noz urtetan zan. Bai, seiretan edo urtetan auen. Ta gero handik jute zan hantxe zereraiño, Arriagako zera, teatruen handik alderdire baiño beste alderdire, paradie aukiten, oin han zera dau, hori tranbixe? Baia hara, iten euen han gero tabernatxo bat egoten zan holan tope eiten auen lekue, han hemetik, kamiñuen hola artezien barik apur bat hara sartute egoten zan, ta hantxe ixite zan tranbixen atzena. Bai. Ta tranbixek hor ibilte zien batzutan halan ta ibilten zien. Aillegau nozonoz.
- Ta zelan ibiltzen ziñen tranbixen? Zelan joaten ziñen, jesarrite, zutunik?
- Jesarrite, zutunik eta danera. Ta han kabite zien danak. Ba paketie, foltsie, sestillie, danak, konprak-ta guzti juten zin. Baiña gero eukite auren atzetik bagoi bat holan txahalak ta eruate auezen hor hor behien. Behien hemen ez, baia hor behekuek txahalak ta eruate aurezan bagoien, bagoie be egoten zan. Baia ostantzien nik ikusi dodaz han ba jentie, sestillie ta zakue-ta, ba danakaz ikusi dot nik tranbixen. Bai tranbixen ikusi dot. Ta gero “trin-trin” iten auen ta parau ta, hor ibili zien, bai. Ontxe urten da Garan be erretratuek tranbixenak Zeanikuek-eta.
- Eta zenbatero egoten zan, egunien zenbat egoten zien?
- Ba egongo zien. Ta nire osabie be ibili zan tranbieru be, ibili zen. Ta goizeko seiretan egoten zan, ta bagoazen hiru-lau, edo gehixau be egongo zien. Egongo zien.

- Zenbat tardetan eban Zeanitik Bilbora?
- Zeanitik Bilbora ba aber, seiretan urtenda ba zortzietararteko biherrerako edo aillegauko zien? Hortxe pentsetan dot, zortziretako biherrerago aillegate zien, seiretan urtenda. Ta batek Altzusteko batek esan auen, berak bere herrixe ez dauela ikusi domeketan baiño. Ba egon zan Euskaldunan edo biherrien, ba hor Zeanuriko asko ibili die Euskaldunan, ta ibili diela biherrien ta goizeko bostetan terdixetan jagi ta tranbian, handik Altzustetik gora ariñeketan bajatuten zala. Ta gabien, ba etorten zan seiretan-edo Euskaldunan-edo urtenda, ba domeketan baiño ez auela ikusten bere herrixe. Ikusi bez. Gabez jun, gabez etorri. Gabez jun ta gabez etorri.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Erdara nola sartu zen Ubiden

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/003
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:02:59. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan neskek maistrarekin eta mutilek maisuarekin ikasten zuten. Urtegia eraikitzera etorritako langileekin sartu zen erdara Ubiden. Alemaniarrak ere etorri ziren lanera.

Transkripzioa
- Ta zuek umetan hemen eukiko zenduen eskolie.
- Eskolie, bakotxien egoten zien neskena alderdi baten, ta bestiena beste alderdi baten. Ta maixue ta maixtrie egote zien ta pillo bat e! Nik ez dakit ba egongo gintzezan berrogei edo hogeita hamar-berrogei edo bakotxien egongo gintzezan. Ta nire semiek eta esate aurien, gero obrak etorri zien hona, ta orduko denboran egoten ziela ba berrogeita hamar ta zera, hemen e mutillen eskolan ta bestien be beste horrenbeste. Ta gero hau e euskaldune herri haundixe izen da, baia etorri zien obratakuek, ta orduntxe erderaztu plantau zan hau herrixe. Obrakuek hemen e bizite zien kamaran, behien, hor edozein lekutan biziten zien, ta, hemen be bizi zien e, hementxe, hau hemetik alderdixe ez hor beste alderdixen e bizi zien batzuk eta, ba gero hemen goixen beste batzuk eta, gorau beste batzuk eta, danetan biziten zien jentie, edozein lekuten. Errementaixek ta be egote zien, ta hantxe be biziten zien ta ba jente pobrie, ta hil be asko ite zien hor biherretik honantza ta hor tunelien, hil be asko.
- Ta ordun kanpotik etorten zan jentie biherrien?
- Ordun etorri zien horrek andaluzek eta galleguek eta etorri zien. Alemanak be bai batzuk. “Campo de concentr…” zelan esaten da?
- “Concentración”.
- “Concentracion”etik ekarrite. Alemanak be egon zien, bai.
- A bai?
- Bai.
- Ta gero ia bertan geratu zien?

- Ba batzuk bai, horrek alemanak be bai batzuk hemen e, hemeko neskakaz ezkondute. Ta beste kanpoko batzukaz be ezkondu zien jentie, bai, bai.
- Ta hori ze izen zan, gerra aurretik edo gerra sasoien o...
- Oin, hero hori! Hori gerraostien izin da, nik e, gerra aurreko konturik ez dakit! Gerra ostekue, ba hori izingo zan e, ba oin hirurogei urte, hirurogei-hirurotabost urte be bai, hirurotabost urte bebai.
- Zu neskatilatxue
- Ni neskatue nazela hasi zien etorten bai.

2.2. Maistra erdaldunak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/004
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Maistra eta maisua eskolaren gainean bizi ziren. Maistra erdaldunak izan zituen beti. Doña Petra maistra gogoratzen du. Herritar bat kartzelan sartu zuten Espainiako bandera ez agurtzeagatik.

Transkripzioa
- Ta gero bestela eskolan e, esan dozu neskak egote ziñiela alderdi baten ta mutilek bestien.
- Bai, bai.
- Ta nun egon zan eskolie?
- Hortxe plaza-plazan dau, oin e aiuntamientue dau e hori aiuntamientue dau, ta lehen izeten zan eskolie bakar-bakarrik, behien eskolie ta goixen maixue ta maixtrie biziten zien, alderdi baten bat eta bestien bestie.
-Ta maistrie nungoa eduki zendun zuk?
- Beti erdeldunek, beti erdeldunek ta ba kanbixete zien, baia ba lehengo egunien be hemen egon da hemen maixtra egon dan urte askuen egon zan ta oso ona zan. Horko bera Pamplonakue edo zan baia Getxon bizi zien gizona edo horregeitik ta, ba, oso ona zan ta urte asko in auen harek hemen. Ta lehengo egunien alabie hemen egon da.
- A bai?
- Bai, bai.
- Ta izenik edo, akordetan zara?
- Maistriena?Bai, Doña Petra.
- Doña Petra?
- Bai, ta oso ona zan, bai, oso ona zan.
- Ordun gustora joaten ziñen eskolara.
- Bai, bai, bai, bai.
- Baia, erderaz, zelan konpontzen ziñien?
- Ba erderaz e, b pff ez dakit ba, berez ikisiko gendun, liburuek hor pasau ta pasau holan e, ba batek esate heuen, holan, zelebrie zan-ta: “Kartoi hori hemen zabixak nik bueltaka, hara ta horra, beti bardiñe!”. Ba, bueltaka ibiltzen zan ta zeoze ikisi gendun ta iasta.
- Ta zuek zuen artien euskeraz eingo zenduen.

- Bai, bai, bai, ta etxien be bai, etxien be bai.
- Eta eskolan zigorrik edo eukitze zenduen?
- Ba iñoz kastigeta oskun baia ba ez, asko ez.
- Baia euskeraz eittiarren ez.
- Ez, ez, ez. Baia hemen euskeraz ite aurielako ba Ismaelen amandre ba kantetan gendun ba “Cara al sol” be hor portalien, han arkupien. Ba kanta genun “Cara al sol” be eskolara sartu orduko! Hori be bai, ta hari, Ismaelen amandre zan e bastante listue, ta hor kamiñuen edo ba ibil zien banderiaz edo pasietan seguru ta, ba saludetan, berak saludau banderiei? Ez dakit zer ta badakit zer ta, aukan maistriaz, beste maistra batiaz apur bat e, zafarrantxue ta kartzelara eruan auren, orduko denboran, bai.
- Bai?
- Bai, bai, bai.

2.3. Arropak eta lixiba

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/027
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 01:03:04. **Bukatu**: 01:06:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropak etxean xaboitu eta errekan astintzen zituzten. Erositako xaboia erabiltzen zuten. Zeanurin, amaren etxean, sutako hautsekin lixiba egiten ikusitakoa azaltzen du.

Transkripzioa
- Eta udan, bueno zuek hemen ez dakit presarik edo errekarik edo eukiten zenduen.
- Errekara juaten gintzezan erropak garbiten! Etxien jabonau ta errekara astinduten. Ta ude -uden iñoz joaten gintzezan ure epel xamarra egoten zan ta hortxe, hango zubipera, han egoten zan harrixek garbittekue, ta harexera joaten gintzezan.
- Andrak bakarrikn
- Bai, andrak bai.
- Ta ze eukitze zenduen, astien egun bat jarrite erropak garbitzeko edo ez?
- Ba astelehenien edo holan ta gero atzera beste egunen baten be bai ta holan, holan, bai.
- Eta jaboie etxien eiten zenduen?
- Ez, ez, ez. Hoixe ez dou in, geurien ez ta hemen Ubiden be ez.
- Erosi beti.
- Erosi bai. Ta karu egoten zan orduen! Jaboie, bai.
- Ta sekule ez dozu ezagutu eiten? Zure amuma edo…
- Ez, ez, ez. Ta ni amamanien egon naiz bai, han Zeanin, ta hemen ez dot ikusi hori, baia han lexibie eiten zan, ba nik ez dakit zelan eiten auen, oin esango dotsut: aska bat egoten zan holan ba goitik urek etorten zien ta eurek biziten zien beheratxuau. Ta askie badakizu zer dan? baia askie zementozkue ez, e? Olezkue, holan arbolie hutsutute? Holan. Arbolie ez dakit ba zaharra edo barrixe izengo zan, baia ha izeten zan arbolien e, holantxi, tronkue, ta hau hutsitute, ta ha zan askie. Ta gero beranduau ein auezan zementozkuek. Zementozkuek badauz oin leku askotan, baia nik

horrek ikusite daukodaz. Ta gero nik pentsetan dot gure izekuek jabonau eingo auezela apurren bat edo, bai, jabonau, bai, bai. Ta gero, iminte auzen tinajan, tinajie zan, zein de, horrek barrillek ardauen antzekuek? Erdibitute holan? Holan, ta astie be eukiten aurien honan, honan, astie be eukiten aurien. Ta imini han amama ta biziten zien hor txarkuen onduen, ta han imini ta hara hautse botatzen otsien, ba holan, hautse hortokue, baia apur bat horrek txingarrok ta kenduta, apur bat findute, ba ez dakit ba non hartuten auren, zerien igual, galbaian-edo, pasauko auren apur bat, ze ostantzien horrek baltzok apurtu eiten daure! Ta hoixe ez dakit ba, baina ingo auren! Ta hara botaten auen gero ganera, ta gero handik ure irikiñe bota ta bota bota ta bota ta bota bota ta erropa zuri-zuri urtetan auren. Ta gero astindu. Baia han ganien ipinteb otsien por si akaso holan trapu lohitxue, holan zaharraue edo ganien holan ta gero bota ta bota ta urek azpitik urtetan auren, tinajatik. Ta gero astindu, ta erropa zuri- zuri urtetan zan ta usin bat! Bai, bai, bai, hortoko harizko erropak ta oaingo erropantzat eluke balixoko, baia.
- Sutako hautsegaz?
- Bai, bai.

2.4. Norberaren garbiketak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/028
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 01:06:23. **Bukatu**: 01:08:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Sukaldeko lapikoak ere oso ondo garbitzen ziren sutako hautsa eta irakin egindako urarekin. Norbera errekan edo etxean balde batean garbitzen zen. Errekan barruko arropekin sartzen ziren uretan. Bainujantzirik ez du Abelintxuk euki azken urte hauetaraino.

Transkripzioa
- Bai. Ta honek lapikuek, hau ba hementxe, hori gure mutillek ipinten dau ogixe-ta, hor eukiten izen dot neuk baban [...] baiñe oin ez dau pegetan hemen ezebe. Ba honetakuek, baltzitu iten zien, dana baltzitute, ta galdara batea sartu hautsaz ta irikiñarazo ta garbi-garbi gelditzen dire, jakin dozu hori?
- Ez
- Ba honek portzelanazkuek bai e? Bestik ez igual e! Baia portzelanazkuek bai. Ta ba San Juanetako ta iten giñuzen hor linpiezok. Ba honek lapikuok be sartu galdara batian ta bota hautse hortokue eta irikiñarazo, garbi-garbi! Holango igurtzi bat in ta garbi-garbi plantetan die, bai-bai! Honek bai, honek gelditzen die garbi-garbi.
- Eta errekara esan dozu erropak garbitzera joaten ziñela.
- Bai, nau be bai.
- Ta udan baiñutxuren bat edo holan hartzen zenduen?
- Bai, joate gintzezan e han dau e pozu haundi bet eta hara joaten gintzezan.
- Nora?

- Ba hemetik errekatik gorantza-gorantza dau pozu haunditxo bat ta joaten gintzezan. Ta ostantzien baldien garbitu ta kito! Besteik ez zauen ta, baldien garbitu ta kito!
- Eta hara joaten ziñenien ze erropagaz edo janzten ziñien?
- Ba hortoko ba kamixetan bat nebiena -edo, baten batena edo neuri eta “unas bragas y alante”! Han ibilte gintzezan apur bet, yasta!
- Trajebañorik-eta ez.
- Pentsau bez.
- Noiz euki zendun zuk lehenengo trajebañue?
- Trajedebañue? Ba, gero hemetik iñora be ez gintzezan juten ta gero ezebez. Aituzu? Gero trajebañue oingo urtietara arte ez dot euki. Oin horraxe joaten nazelako balneairure ta, oingo urtietara arte ez dot euki gero. Ta mutillek be juten zien ta ba txikiten biluzik, ta gero ba kantzontzilluekaz edo iten auren uger, ta kito.
- Karo. Ta zuk ugerrien ikasi zendun?
- Nik ez, ta euuki dot gana bat! Baia ez dot ikisi! Ta gero honek be esaten dostie: “ba ontxe!” Ontxe bai,tertzio hontan, hil in biher-ta.
- Bai ba, iñoiz ez da berandu.
- Ya, ya.

2.5. Zeanuriko parroko zorrotza

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/033
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 01:17:13. **Bukatu**: 01:19:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Ubiden ez bezala, Zeanurin abadeak eta alkateak dantza lotua debekatuta zuten. Otxandioko Mekoleta auzoko akordeoijolea ere ezaguna omen zen. San Juanak ziren Abelintxuren jai gogokoenak. San Juanetako ohiturak azaltzen ditu.

Transkripzioa
- Ta orduen hemen zueri abadiek eta alkatiek eta ez otsuen ezer esaten?
- Dantza konturik ez, ez.
- Zeanin bai.
- Bai, Zeanurin e ez otsien itxiten, ezta egon sekule jantzan agarraurik, han. Ontxe gerora arte, ta oin iñok eztau iten jantzan!
- Eta han nor egoten zan ba gogor, abadie?
- Abadie, abadie eta alkatie be lagun. Danak lagun. Abadie be urte askuen egon zan, bi zein eta ez dakit, ta parrokue ta ha izete zan horko jefieoi.
- Eta gero, Otxandixora-ta.
- Bai, bai. Ta etorten zan beste akordeonista bat be hortik Mekoleta da barriada bat Otxandixokue, badakizu? Ta handik etorten zan akordeonistie, ta ba bueno, jente asko egoten zan ta beti zan fiestie, haratik o honengatik ensegida presenteta zan han fiestie!
- Ta ze jai gusteta jatzun zuri asko?
- Ba beste Gabonak eta San Juanak eta gehixen-gehixen.

- San Juanak, Ubiden.
- Bai, ta iten zan bezperie, lehenengo egune, bigarrena ta hirugarrena. Ba lau egun, lau egun “de fiesta”.
-Eta zelakoa izeten zan jai egun normal bat, goizien goizetik altxeu ta ze?
- Ba goixien-goixien ba goixien San Juan egunien iten zan hor lorak hartu ta hemen etxietan iminten die holan lorak horrek, margaritak. Ta harek imini ta ba gero txokolatie ite auren, hor mutillek, taberna baten-edo, hor iten zan holan, ta gero txokolatie hartu ta ba goizien hondiño iñor fiestie hartu barik goizetik txokolatie hartu ta ba gero etxia jun edo ta preparau ta gero ba meza nausire. Ta gero meza nausi ostien etorte zan fiestie bertakue, bertakue ba gaueko gauerdi arte-edo, hamabixek edo ordu batak edo ordu bixek, ordun gehixau ez. Nahikua zan. Ta orduen gizonak iten auren ba igual bentanan edo euki ezkero ba baten bati, gure amari ta ez baia ba euki ezkero azurixe edo gordeta fresko-fresko ta manejau ta eurek jan ta ite aurezan gero hor plazan ta. Zeozer topetan bauen kazuelan bat iminte manejau ta gero plazan jan ta iten auezan, hori mutillek. Hortoko gauzak ite auezan. Ta txartzat hartu bez, txartzat hartu bez.

2.6. Urtegiko langileentzako beste abade bat

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/034
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 01:19:55. **Bukatu**: 01:22:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Normalean abade bi egoten ziren Ubiden, baina urtegiko lanen denboran hirugarren bat ere etorri zen, murgiarra bera.

Transkripzioa
- Eta hemen esan dozu abadiek ta libre izten ebala, eta han sasoien zenbat abade ezautu dozu zuk hemen Ubiden?
- Hemen nik bi ezautu doaz, baina lehengo egunien ibili gara konbertsaziñuen, ta hiru abade be eon diela obra denporan. Ze obra denboran bat egon zan mezie hor Zubizabal badakizu zein dan? Hor kruzie dauena hor Otxandixotik? Hortxe dau kruzie hemendik lau kilometrora, bai. Han egoten zan ermitatxo bat be bai obreruentzat iminite.Ta han, ta beste bat han e hortik harantza be bai beste ermitatxo bat hor e egon zan, ta harako be ba abadie etorri zan ta egon zien orduko denboran ba bi egoten zien seguru ba lehenauko denboretan be bat-bi, ta gero ba obra denboran beste bat gehixau obratarako ta hemen bizi zan. Ta ha zan Murgixekue, bai, ta oantxe hil da abadie, bai.
- Ta ze izen eukon?
- Don Martin. Bai, apellidue ez naz akordetan.
- Ta zelako, zelako akordue dekozu berana, ona?
- Ba ona zala esaten aurien, bai, bai. Holan trankillue zan, bai. Ta juten zan hemen egon zan patrona etxe baten ta ba harek etxeko andriek gero ba gure amana ta etorten zan, ta ba esaten auen ba berak esate iotzen ba orduko denboran ba ez dait ba, zopa apurren bat edo patatak edo imingo otsan ta gabien beti peskaue be ez otsen imingo ze hemen ez zan egoten

peskaderik be ta noz edo nozko baten imingo otsen, baia tortilla apur bat edo ipiniko otsen ta juten zan horra txaletera, hor egoten zien obrako jefiek biziten ta ba hara juten zan kartatan ta esate iotzen ba “lehenengo afaldu eizu ta gero zoiez hara” ta ez dakit zer ta badakit zer ta, jaramonik be ez ei otsen iten. Ta etorri, bera hantxe itxoten zopie atarata “a las mil quinientas” hamabixetan-ta, ba etorte zan seguru afaiten. Ta berak esaten: “zoiez ta afaldu eizu lelengo ta gero zoiez”. Baia berak gure ozenak iten oazela , hori esaten osten baten.

2.7. Gatzatua galdaratik platerakin hartzen

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/043
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 01:41:25. **Bukatu**: 01:43:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Gatzatua gazta egiten zen era berdinean egiten zen, esnea egosi gabe. Galdara batean egiten zen eta bertatik burruntzaliarekin bakoitzaren platerera. Arkumeak eta ardi zaharrak ere saltzen zituzten.

Transkripzioa
- Ta gatzatua eta be, ugari eingo zenuen etxien.
- Bai, bueno ba gatzatue lehen, lehen han pastorien etxien eitenda, zein de? han gaztaie eiteb orduen ba baldetik holantxe hartu ta yasta, bota azukrie ta yasta. Bai, imini barik bakotxien tazetan edo dana dalakuen katxarruen, platerien ra! Hartu gaztaie eiten orduen ta kito! Gozue izeten da, bai, halantxin be. Esnie egosi ta ezer ein barik. Bai.
- Nik egosi barik sekule ez dot…
- Bai, bai, nik egosi barik be sarri jan dot. Oin nik be hemen egosten iminten dot, baia ostantzien lehen halan jan dot nik holantxi: hartu baldetik platerie ra! , yasta. Ta gozue da, bai.
- Eta zure aitxek gero okela be saldu eiten eban? Edo…
- Ba gero azurixek eta saldu ta ardi zaharrak be bai-ta, ba halantxi diru apurtxo bat! Ardixek be zaharrak izeten direnien, oin ardi zaharrak iñok be ez dauz gure, ze oin jentiek okela ona gure dau bai. Ta hona etorten dire oin, moruek datoz ba ardixek erosten. Moro baltz-baltzak datoz. Ta ez dakit, bost mille pezta-edo kobratzen dotsie bakoitzeri ta ba bueno. Ze ostantzien harek iñok be ez dauz gure ta, iñok be ez dauz gure ta, bueno, moro baltzok etorten dire. Hilde emoten dotsiez ta yasta.

2.8. Besteen aitortzak entzuten

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/051
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:59:54. **Bukatu**: 02:01:03

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Behin batean, konfesatzen zegoen agure baten aitortzak entzun zituzten Abelintxuk eta lagunek. Ubiden abadeak ez zieten mutiko konturik galdetzen neskei. Ezkondu aurretik musuak ezkutuan ematen zituzten.

Transkripzioa
- Ta gu, gu beste baten ba hori, nire lagune zan barrabasa ta, ba bat egon zan konfesetan ta ibili zan ta, ba guk entzun, ta bere kontuk esaten ba neska batiaz ibili zala ta ez dakit zer ta emoten dosku barriek, barriek, ta zahar-zahar bat zan, zahar-zahar bat. Ta gu barreka, guk akorduen haren pekatue ta barreka, besteik ezebez.
- Zuek be barrabaskerixek eingo zenduezan.
- Bai, ingo genduzen, bai, bai.
- Ta zer zan pekatue? Zer kontatzen zenduen pekatuten?
- Ba ez garela jun mezetara, ta ba ez dakit ba nik, edo amari ez dotsetela ba ez dakit, ha iteko esan dostela ta ez dotsetela ein o hortakon batzuk izengo zien, hortako batzuk izengo zien, beste asko etzien izengo.
- Ta mutil kontuek-eta?
- Ba ordureko apur bat apur bet zertu zan, mutil kontuek be geruau kontau biherko /biko/ genduzen. Baia ba ez eurien jaramonik be eiten hemen. Hemen abadiek ez die izen horrenbestekuek. Ez, ez, ez.

2.9. "Culto y clero" elizaren zerga

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/053
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 02:02:25. **Bukatu**: 02:04:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- **Laburpena**: "Culto y clero" izeneko zerga antzeko bat ordaintzen zioten antzina elizari. Zerga honen garaiaren aurretik, abadeei jatekoak ere ematen zizkieten, bizi ahal izan zezaten. Derioko seminariorako dirua etxez etxe batzen zuten Ubiden. Etxeren batean ematen ez bazuten, abadeak errieta egiten zieten.

Transkripzioa
- Eta abadieri zuek ordaindu edo zeozer eiten otsazuen?
- Orduen, orduko denboran? Ni akordetan naz “culto y clero” esaten auen gure amak, izena hori eukien. Ba noizik behinien pasetan auren hortoko txataltxo bat papela ta pagau in biher zala /bizala/, ta nik ez dakit zenbet pagau biher zan /bizan/. Ta lehen lehen nire amak esaten auen, nire ama zan abadien artekue, ta berak euki eben osabie abadie, nebie fraillie, ta elizati haundixe zan nere ama. Ta ba “culto y clero” pagetan zan, ze lehen lehenau abadiek-eta bizi ditezan emoten zan seguru ba ogixe-ta, gauzak

abadieri ematen jakozan bizi daitezan. Ta ba entierro egunien be ogixe-ta emoten zan seguru, entierruen eruten ei zan seguro hemen buruen otzaran imini ta ogixe ta ez dakit zer ta badakit zer ta zan abadientzat seguru. Ta ba gero horrek etzien iten ta “culto y clero” elizarako izeten zan seguru. Ta emoten auen gure amak be. Gure amak be emoten auen, bai, bai. Ta gero akordetan naz seminaixue zerekue, hango Derixokue, ba harako ba sobrie, ba sobrie botaten auren etxe guztixetan, harek zenbat urte eukiko dauz ba seminarixuek? Berrogeita hamar bat? Baliteke. Ba bueno. Ta ez dakit ba, gure mutikuek be ibiliko zien errepartiduten ba sobriek, azul batzuk etorten zien etxietara errepartiduteko. Ta ba holan, seminarixorako dala ta ba gure amak be emango auen,“no faltaba mas”. Ta horretan ba emon ta emon ta etxe batekuek emon ez, ta atentziñue deitu otsen abadiek ya ya emon ez iteko dirue ta ez dakit zer ta badakit zer, atentziñue deitu otsien diruik ez daurela emoten seminarixorako. Majo ein daruie oin, oin eurek alkilau, eurek saldu, ta eurek danak ein. Danak ein daurez oin aurek.

2.10. Medikua ordaintzeko Iguala bat zuten

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/054
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 02:04:50. **Bukatu**: 02:07:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Medikuari ordaintzeko Iguala bat zegoen Ubiden. Aguazila etortzen zen hilero saria kobratzen etxera. Don Samuel mediku muxikarra gogoratzen du. Ubiden hil zen, eta Abelintxu bere hiletara joan zen Muxikara.

Transkripzioa
- Ta medikueri?
- Medikueri pagetan zan Iguala bat. Ta medikue egon zan urte askuen hemen ta on-ona izen zen, Iguala pagetan zan. Etorte zan kobradorie, aguazile izete zan hemen bertakue, horrek Nieves-ta horren, Justotxoneko haren aite zan aguazile, Adela ta horren zerien. Ta ba etorte zan kobretan ba nik ez dakit ba zenbat kobraukoan, hillien-hillien, medikuentzat etorten zan kobretan. Ta iasta.
- Ta medikuek ze euki eban, konsultie edo etxera joaten zan?
- Bere etxien eukite eban han entradatxo bat, ta haraxe joaten zan. Ta ostantzien etxera. Ta txarto egon ezik jun bez.
- Ta zein zan medikue?
- Don Samuel Pertika, hori zan Muxikakue. Muxikakue
- Muxikarra zan?
- Bai. Badakizu? Zeu bertakue za? Ba bueno, gero entierrure joan gintzezan. Etxie egon zan, holan harrizkue, harrizkue, honexen antzekue, ta ba aber, honan albuen egon zan hor guk garajie daukun moduen? Berja txikitxu bet, ta etxie berdin-berdiñe zan honentakoxue, harrizkue-ta.
- Baiña elizie zelakue izen zan, euzoa jakitreko.
- Ez naz akordetan eliziaz, joan gintzezan, baiña ez naz akordetan eliziaz.
- Oso handixe da, oso handixe.

- Ba hango elizatik, hemen hil zen hori.
- Han lau eliza dauz entierroak eiten dauzenak.
- A bai? Ba ez dakit ba zeiñetara jun gintzezan, baiña gu hara etxera Muxikakora joan gintzezan ba hontakoxe etxie zan, bardin-bardiñe, hauxe modukue. Ta ba gero ha saldu in daurie, ta horrek euki ebazan basuek ta haundixek, Pertika apellidue. Ta ba gero hil zen bera kantzerraz ta gero ba hemen hil zen ta han enterrau aurien. Hemen hil zen. Hori hemen egon zan ba ezkondu bere lehengusiñie zala esaten auren ta hemen bizi zen umiek ta danak hemen ezkondu zen, ta hemen bizi zen, Baiña gero hil in zen kantzerraz ta han isin zan entierrue, ta autobuse ipiñi auren ta neu be jun nintzen.

2.11. Antzinako gaubeilak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/056
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 02:10:13. **Bukatu**: 02:12:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Abelintxuren gaztaroan, norbait hiltzen zenean gaubeila egiten zitzaion. Gorpua ohe gainean zela, haren ondoan errezatzen ematen zuten gaua. Goiz aldera anisa eta gailetak ateratzen zituzten. Hileta goizeko 10:30ean izaten zen. Gero bazkaria egoten zen etxean. Aguazila ehorzlea ere bazen. Geroago hobiratzeak auzolanean egiten ziren.

Transkripzioa
- Ba hemen baten bat hilten zanien ba iten zan ba oin nire ama ta ontxo hil diez, ez? Baiña lehenauko kontuek esango dotsut /esangotsut/. Ba hilten zan baten bat eta joaten zan gaubeilara. Gaubelie badakizu zer dan? Bai, errezetan edo egoten, egoten. Ta ba norbere etxekue izin ezik ba ni gazte-gaztetan ba pozik juate gintzezan, “a la juerguilla”, aitu dozu? Gazte-gaztetan “a la juerguilla”, bueno. Ta joaten gintzezan ta ba han errezuek iten aurezan ba egoten zan kajan bez, ohien ganien egoten zan hille. Ta ba errezuek ta han noizik behin baten iten aurezan errezuek eta errezuek eta errezuek. Gero bixen bitartien han kontuk kontaten egon ta gero ba han auzuen be bat hil zen ta ba orduen ataten daure anise ta galletak eta, goizaldien, goizaldien ataraten daurez. Ta ba bueno, gazte-gaztetan pozik hara, ba hango “juerguilla”. Ta akordetan naz baten be ba hori Eugenion arrebie ta jun gintzezan horra etxe batera ta mutil bat egon zan gure edade antzekue, holan dotore-dotorie zan ta sudurre auken holangoxe terriblie ta argixek ite auen hemen beste alderdixen sudurre terriblie, guk emon oskuzen barriek, ba barreka, holantxi. Ta ba gero hurrengo egunien goizien hamarretan edo hamar terdixetan, hamar terdixetan izete zan entierrue, ze etorte zan autobuse Bilbotik. Ta gero ba bazkaixe be etxien imiñi biher ba! Ba ze hemen ez zan egoten joateko iñon be, ta kotxerik bez! Ba bazkaixe iminten jakien, ta ba bazkaldu ta gero arrastixen martxete aurien. Ta ba horixe, bai. Ta gero ba besten batzuk igual ba etxien, etxien geruau-geruau, baten be Martinen ba amama edo aitite hil zan ta han Gorbean egon zan tabernie ta han in aurien bazkaitxon bat eta

holan in izen daurez, baiña ostantzien etxien, etxien bazkaixek, bai, etxien iten zien bazkaixek.
- Ta enterreu?
- Enterrau ba zera lurrien, lurrien lurrek atata, bai, bai.
- Beti kanposantuen.
- Bai, beti kanposantuen, bai.
- Ta ze egoten zan enterradoren bat-edo?
- Ba lehen-lehen egote zan ba hori, aguazille izete zan enterradore be egoten zana. Ta gero ha be hil zen ta ba gero, geruau, ibilten zien ba lagunek-edo holanik. Ta gero beste batek beste urte beteako edo, harek Patxikok be hartu auen, baiña harek be hillekaz ibilteko ez dakit zer ta badakit zer ta iñok in gura ez. Ta gero ba lagunek ta ibilli izen die, ba baten bat hilte zan ta auzuek edo zulue in ta, holango batzuk, bai.

2.12. Bataioak; hildakoengatik mezak eta errespontsuak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/057
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 02:12:58. **Bukatu**: 02:16:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
  Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- **Laburpena**: Bataiatzeak lehen mezarekin batera egiten ziren. Umea jaio eta egun batera edo bira bataiatzen zen. Lehen jaunartzea zazpi urtegaz egin zuen Abelintxuk. Hildakoengatik ematen ziren mezak eta errespontsuak zelan egiten ziren azaltzen du.

Transkripzioa
- Eta bautizoak zelakoak izeten zien hemen?
- Ba lehen bautizuek ba meziaz batera, batera. Ta bautizue ba lehen umiek be asko egoten zien ta ba jaidxo ta ensegida egun bi edo hiru barru iten zien bautizuek, “sin grandes cosas”. Ta ba holan. Ta ba yasta, bautizue ite zan ta bautizaute yasta, besteik ezebez. Etxien ingo auren merienda apurtxu bat ta yasta! Oin diez bautizuek haundidxok ta. Ta ni jaidxo nintzenien nire aitek ipini auela, etorriko zien ama, amabitxi ta aitebitxi, amapuntako ta aitepuntako ta, ta nire aitek ipini hauela makallaue, ta egon zala gozo-gozo! Besteik ez dakit ezebe. Ta oin izeten diez bautizuek halakuek ta holakuek ta, orduen horixe, besterik ezebez.
- Ta bautizoan ama, aite, amabitxi ta aitebitxixe.
- Bai, besterik iñor bez, ta etxekon bat edo ta yasta, besterik iñor bez. Oin diez bautizuek eta. Ta gero hemen bat hilten danien ba gero mezak ataten dire, ba urtebete edo bidxen edo ba zerien, elizan. Ta abadiek esaten dau ba urrixentzat, ta fulano fulano ta mengano. Ta ha ba pagetan zien ta yasta, pageu ta kito. Ta gero, errespontsuek be egoten zien lehen-lehen. Gero oin aspaldiko urtiokaz ez. Ordun pezeta bat pagetan zan urrien, ze orduko denboran, guriek zelan ez zien hil ez dot jakin horrenbeste. Ta gero, ba hilten zan baten bat eta errespontsuetan abadie juten zan hara, sepulturak be ikusiko zendun zuk elizan ala ez? Ta hara, hara jun, ta gero han errezetan egoten zan ba abadie, egoten zan errezau ta errezau,

hortoko, zelan jakon izena, hareri sombrerueri? Ez jat akordau be iten. Sombrero bat izeten zan “de luto” ta bestie zer zan? Hori bestie? Ez dakit zer jakon izena. Zuk beste sombrerue ikusi be ez zendun ingo? Holan, holan txikitxue, puntakaz, holan puntakaz, ta gero hemen eukiten eban borla bat. Ez dakit zer jakon izena. Ta bestie izete zan “de paseo”. Hori erredondue ta zeradune. Ta hara botaten aurezan andrak diruek ta holan, ta holan bota ta bota ba txakur haundi bakoitzeko aite gure bat urrien. Ta abadie han sepulturetan errezetan egoten zan, yasta. Ta orduko denboran guriek ez zan hil ta ez dakit horrenbeste geuzioi.

2.13. Ubideko kanpaijolea

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/061
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 02:23:33. **Bukatu**: 02:25:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena**: Ubiden kanpaijolea zegoenean goizeko abemariak, 12:00etakoak, hildakoenak, iluntzeko abemariak, eta goizean norbait hil bazen, hildakoenak berriro ere jotzen ziren. Kanpaia ez omen zen isiltzen egun guztia. Kanpaijolea hil zenetik kanpaiok isil samar omen daude. Hildakoa andrea, gizona edo umea zen, kanpai-hotsengatik jakiten zuten. Umearenari 'aingeru kanpaia' deitzen zioten.

Transkripzioa
- Kanpaiek, hemen kanpanerue egoten zan. Lehenengo joten aurezan kanpaiek, aber zelan esaten da, goidxien, “aimarixek” esaten zan, “aimarixek”, “como el amanecer”, joten aurezan kanpaiek. Ta baten bat hil zanien, hilten zanien gabien be, orduen joten auen kanpaie hillena. Ta kanpanerue egoten zan hemen. Ta ba joten aurezan. Ta gero atzea eguerdixen be kanpaiek hilenak joten aurezan, ta hamabixetakuek be bai! Hamabixetako kanpaiek be bai! Ta bueno, ta gero ilunkeran be aimarixek joten aurezan. Ta baten bat egunez hil bazan be, harek hil kanpaiek be illunkeran. Ba holan ebizen kanpaiek parau barik! Ta gero ba kanpanerue ba hil zan ta gero kanpaiek joteko ba iñok ez dau hartu gure ardurarik. Ta ba oin kanpaiek ez hamabixetan ta ez iñoiz bez, oin erlodxue apurtu in da, baiña oin badabil berak joten dauz kanpaiek erlodxuek, baiña ostantzien erlodxue eote zan ta lehen ez auen joten kanpaitik-ta. Ta oin hil kanpaiek be ba ez daurez joten, justu-justu entierrue dan egunien. Ze lehen joten aurezan bezperan be. Oin ez daure joten ze ez dau kanpaneroik-eta, entierrue dauen momentuen joten daurez.
- Ta hil kanpaiek zelakoak izeten zien?
- Ba holan motelauek: “bom-bom-bom!”. Ta andrie danien, bi joten aurezen gurien “bom-bom!” bi: ta gizona danien, “bom-bom!” hiru. Halan jakiten auren andrie edo gizona dan hil dana.
- Eta ume bat bazan?
- Holan alegriek. Ba holan ba esate otsien “aingeru kanpaiek”. Ba holan “tin-tin-tin” alegriek izeten zien, bai, alegre-alegriek izeten zien.

2.14. Sute kanpaia; exe-erre batzeak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/062
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 02:25:32. **Bukatu**: 02:26:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Sutea zela jakinarazteko, kanpai-hots berezia zegoen. Etxea galtzen zutenak, erre batzea egiten zuten, norbere herrian eta baita inguruko herrietan ere. Dirua edota generoa batzen zuten, gero saltzeko.

Transkripzioa
- Ta etxeren bat edo basoren bat edo erre ezkero.
- Orduen jo ta jo kanpaiek! Hemen etxe bi edo nere akorduen erre die, ta kanpaiek “bum-bum-bum”, baia jo ta jo! Bai, bai, bai
- Ta horrek etxiek erre ta danak laguntzen edo zer?
- Ba orduen, orduen egunien juten zan, baten etxie erre zan zera, hori Bernar bizi izen dan hori, plazako etxie zarratute dauena? Horixe ta ba mutikuek-edo imini aurela argizaixe ez dakit non ta badakit non ta isetu eben ta iasta. Ta ba asko zien ta danan artien zeozer eingo auren. Ta beste bat han, Aduna onduen. Ta ba gero, orduen urek eta orduen bonberoik ez dot pentsetan etorten zanik, ta urek eta urek botaten, ta ba etxie erreta, iasta. Ta ba horixe. Ta gero juten zien etxie erre ta dauenentzat, ba hango ezaunek edo etxekuek-edo ba hemetik danetik ibilten zien eske, ta han Gernikakuek edo Zornotzakuek iual honaiño be bai e? Ta ba beti emoten jakien zeozer. Ba batzuk zakuaz be ibilte zien ta dirue-edo, ba dirue fazilaue ta beste batzuk iual artue, beste batzuk babie, ta gero saldu ingo aurezan ta holan ibilten zien eskie.

2.15. Nesken azal zuria modan zegoen

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/064
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 02:29:03. **Bukatu**: 02:30:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Neska denboran, azala belztea ez zuten gustuko izaten, eta sorora prakak jantzita, eskumuturrerainoko alkandora eta kapela zabalekin joaten ziren artajorrara. Orduan azal zuria estimatzen omen zen.

Transkripzioa
- Eta gero honan neskak, zuek makillajie-ta ibilten zenduen gaztetan?

Makillajerik-edo?
- Ba hemen nire lagunek, ba nire lagunek ba ibilten zien. Ba ni zuritxue nintzen ta ba nik ezebez, baia beste batzuk ba, ni be ibiltzen nintzen soluen ta gusta jaten neri morena eotie, baia ba morena be beste batzuk ez euen gure. Ta iminten auren pañolo haundi bet, honan, honan, ta hemen sartute otsien periodikue in deitsien honan kerizpie gehixau, kerizpie gehixau in deitzen. Ta gero ba Eugenion arrebie ta honan dotoriek zien, ta alkandora bat aitena ibilten auren hemen, botoiekaz lotute soluen, soluen, honan, ba baltzitu ez iteko. Ta frakak solora joaten zien ta hemen artajorran ta ibilten zan apur-apur bat ude-uden. Ta zera, frakak bernak be baltzitu ez iteko. Ta ba bueno, honantxe, baia makillajie, gero beste bat edo bi ibilten zien ez dakit zelako hautsek zien orduen, izena be, ta zuri-zuri inda hau, zera zuri-zuri aurpeixe einde. Ordun zuri-zuri egoten ba! Aitu dozu? Ta ni zuri-zurixe nintzen ta nik ez neuken nezesidadeik, makillajie pentsau bez, pentsau bez. Ta baten euki nuen ezpanak pintetakue ta ba jun nintzen han baten Bilbora, pintau nintzen ta ba izekuen aurrien ez nintzen pintauko, baia “urtengo nan apur bat pintaute”, ta porteriek esan otsela: “Tu sobrina ha venido, ha bajau con los labios pintaus”. Beitu zelako ederto esan otsen! Ba iasta.

2.16. Bijiliak, barauak eta bulak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/065
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 02:30:57. **Bukatu**: 02:33:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Abelintxuren ama oso elizkoia omen zen, baina bijilia egunetan baraurik ez zuen egiten. Okelarik ez zuten jaten etxean, baina baraurik ez zen inor egoten. Gurutzekoa eta okelakoa bulak erostera bidaltzen zuen amak Abelintxu abade-etxera.

Transkripzioa
- Eta gero, Aste Santutan, lehen komentau dogu, baia bijilixe zelan eitten zenduen?
- Bijilixe? Gure ama zan bijilixen zera terriblie. Ba kuestiñue, ba bueno, Aste Santuek. Ta Aste Santue ta ba orduen abadiok etorten zan sermolaixe be. Ta Orozkotik etorten zan bat eta ba kurutzeakaz be juten zan kanposanture ta bueno. Ta gero ba bijilixe izeten zan ba Aste Santuen hasi ta hor zerien ta okelik ez zala jan biher barikuetan ta bueno, ba gure ama beti ibilten zan bere bijilixokaz, bai, bai. “Así como” barauek be iten auezan batzuk, lehenagoko zaharrak, baia gure ama barauekaz ez zan ibilten. Ta baia bijilixekaz bai! Ta ba iten gendun ba orduen beste batzutan igual jango gendun urdaixe-edo jango gendun ba urdaixe, buzkentzak edo txoizue edo okelie. Okelie orduen erosten ez gintzezan juten, ardixena ta, orduen ta honan jaten gendun asko. Ta ba ez gendun jango ordun egunien ta kito! Besteik ezebez. Ta beste batzuk ba hango auzokuek-eta barauek-eta eiten auren, ta gure ama elizati haundixe zan, baia baraureko ez eban eukiten zera hori, ta iasta! Ta gero bulak eroste zien. Badakizu zer dien bulak?

- Gulak?
- Bulak, gulak ez.
- Ez.
- Ba gero ba erosten zien abade-etxien. Ba erosten zien bulak, bu-bu-bu bulak. Ta ba pagetan zan ordun ez dakit ba, pezeta bat bakotxa-edo, bakotxentzat, etxe bakotxentzat. Etxe bakotzeko pertsona bakotxentzat bat erosten zan. Ta bueno ba bat izeten zien okelakuek, ha izengo zan hareaz okelie, okelie jateko permisue ez dakit ba noiz eukiko zendun. Ze bijili egunien jan ez itekotan! Ez dakit ba. Bueno, izengo zan, ez izeten zan hurrien garizuma guztixen izeten zan bijilixe, ta gero barikuetara arte bestiek parkatute eukiko euezan, edo hobarik ez zan egoten eta zelan jango gendun ba? Baia bueno, izengo zan holan. Ta izengo zan barikuetan bakarrik iteko bijilixe, hori izengo zan. Ta ba bueno, erosten gendun ha, pezeta bat bakotxa bulie pagetan zan, ta juten zan abade-etxia. Ta beste batzuk egoten zien kurutzakuek, ta bide batez ha be erosi in bihe zan / bizan/ seguru! Ta nire amak bilduten osten dirue kurutzakue ta okelakue erosten, ta ez dakit ba horrek obispaure-edo bialduten auzela diruek esaten auren.

2.17. Gabonetan auzokoak etxera

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/070
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 02:40:26. **Bukatu**: 02:42:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Arto zuritzen auzolanean egiten zuten. Gabonetan auzokoak etxera etortzen ziren, zerbait edan eta kantuan egitera. Elizara sartzeko oinetakoak eliza ondoan aldatzen zituzten. Bakailaoa, bisigua edo txitxarroa jaten zuten Gabonetan. Aza ere Gabonetan beti jaten zen. Txerria hil berri bazegoen txerriki onenak ere jaten ziren. Postrerako senideek Bilbotik bidalitako turroiak hartzen zituzten.

Transkripzioa
- Ba lehen, Gabonetan- ta be ba auzokuek etorten zien etxera, hemen. Ta ba han ba eran ta kantu batzuk ein ta Gabonetan. Ta lehen han, oin urte asko hemen artorik ta be ez da erain, baia oin landak imin die ta behixek eta holan eta gehixau ta, ba artuek egoten zien bai ta artue zurituten. Badakizu zer dan artue zurituten? Ta artue zurituten auzokuek eta danak eta gero fiesta apurtxo bat in ta, ba iasta. Ta Gabonetan zera etorten zien auzokuek ta anise edo koñak edo beste gauza haundirik ez zan egongo. Hortokon batzuk eran ta kito! Holan, auzokuekaz. Ta gero handik goitik mezatara be ba lupetzak egoten zien, ta etorten zan ba zapata zaharrouekaz ta elizonduen eukiten gendun kanbixetako zapatak. Ze lupetzak egoten zien-ta. Juteko ba apur bat zapatak ta patxarasau.
- Eta Gabonetan bestela, zer eitxen zenduen etxien zeuok?
- Ba haixe jana besteik ezebez.
- Zelako jatordue izeten zan?
- Ba gure etxien izete zan beti ba makallaue ta okelie erosten ez, ba

txerrixe hilgo gendun bezperetan ta solomue piper batzukez ta azak akordetan naz jaten ziela orduen Gabonetan. Ta azak ba berakatzaz erreta ta, ba gero zera bisigue be bai, baia gitxiagotan, ze bisiguek be momentuen erosi biher zien /bizien/ ta etorte zan peskaderun bat, baia iual etorko zan ta iual ez ta dana dalakue. Edo txitxarrue be bai, gozuek izete zien, ta txitxarrue gero ta makallaue. Por si acaso makallaue. Ta makallaue ta gero haxe txerrixen ba buzkentzak egon bazien be bai ta ba txorizue edo solomue edo, hoixe izingo zan.
- Eta postrie?
- Turroiek.
- Turroiek?
- Bai, turroiek jan douz, erosten ez gintzezan ibilten baia Bilbotik bialte oskusen turroiek, gure izekuek. Bai, turroiek.
- Ta bestelako postrerik ez? Intxaur saltsarik edo holan?
- Ez, gurien ez. Gero ba nire gizonai gustaten jakon ta baten berak ein auen, baia ba...

2.18. Ubide, herriaren izena nondik datorren

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/072
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 02:48:29. **Bukatu**: 02:50:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Herriaren "Ubide" izenaren jatorria azaltzen du. "Ur bide", erreka bik herrian topo egiten dutelako omen da izen hori. Gorbeia eta Barazar errekak Ubiden topo egin ondoren, Santa Engrazia errekak irteten du urtegira bidean. Etxean uholdeak jasan izan dituzte.

Transkripzioa
- Hau erderaz “Ubidea”, lehen Ubidea ibilte zan lehen “Ubidea” ta “paya y paca Ubidea”. Ta oin Ubide dako izena. Bueno, ba Urbide dauz erreka bi batera honan eiten daure hortxe, hortxe, ta hargatik dauko Urbide, ur bi batera plantetan die. Urbide: biek batera plantetan dire. Ze bat dator handik [Basardi] ta bestie dator Gorbeixetik.
- Orduen bixek batzen die hemen ta gero bakarra eiten dabe?
- Bakarra, bakarra zerera, Gasteizera, ha zerera, pantanora. Pantanora, horra Villarrealera, bai, Legutianora.
- Izenik edo badeko errekiek?
- Harek bestiek Santa Grazia, ta horrek bestiek Gorbea ta honek bestiek Barazar.
- Orduen Barazarrekoa ta Gorbeakoa batu.
- Hemen eiten dau txoke. Txoke eiten dau hemen.
- Hor zubixen?
- Lehentxuau, hementxe goixen, gorau, hortxe. Ta hemen egon die urixolak be! Ba baten egon zien, oin zubixe arreglau auren ta ba gitxitxo, baia egon ziren ba honaiño inguru ure. Honaiño inguru. Ta oin zubixe arreglau daure ta gure mutikuek ta ikusi daure honaxeaño-edo, gehixau ez daure ikusi.

Baia baten be ure sartu zen gabe baten gu enterau orduko dana ure. Ta pentsuek saldu iten genduzen ta pentsuekaz hau beterik euki gendun ta erdixok galdu zien. Bai. Ta oin arreglau auren zubixe ta iñoz-iñoz apur bet sartu da, baia ez. Ta gero hortik etorten da ure [Basardi] be be asko, ta hemen txoke iten dau letxe ba hor iten dau apur bet alto ta hortik atzenien hortik ure sartuten da, atzetik. Ba hemetik sartu ta hortik urten.

3. Politika

3.1. Emakume bi eta 18 gizon ubidear preso

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/005
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:07:33. **Bukatu**: 00:10:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Aita Segoviako kartzelan egon zen preso. Garai haietan, 18 ubidear egon ziren espetxean. Aita abertzaleei botoa emateagatik hartu zuten preso. Emakume bi zeuden atxilotuen artean. Erreketeak sartu zirenean, emakume batzuei ilea moztu zieten.

Transkripzioa
- Ta hemen jentie kartzelara nora joaten zan?
- Hemen? Edozein lekuten, nire aite egon zan e Segovian.
- A bai?
- Bai. Hemen egon dire, hemen herrixen egon dire, hamazortzi gizon kartzelan, asko! Herri txiki txikixen. Ta, ba, batzuk ixingo zien holan e... Hemeko andra batek Petra jakon izena, ta harek esate osten: “horrek politikuek ixin die”, baia nire aite ez zekixen ezebe, jakin bez ta gure bez ta ardure bez. Ta pastore ibilten zan ta ba, ba, bota otsielako nazionalistei edo dana dalakuei kartzelara erun ta kito. Ta hemen e ba kartzelan andrak be egon die bi, bi. Ba hor e baten be ba in auren e, fiestie, gizon bat hil zan e, ba hemeko hortoko karlistie izengo zan ta banderiez ta eruan auren, neu be akordetan naz hori! Ta eskolatik, maistriek e ba “Urrixe” hil dala ta ati zabaldu oskun ta ba banderiaz eruan aurela. Banderie ganetik ipiñite, kajoie oin eroate dauzenan moduen! Ta hortan haren e, zelebrau bidaurela haren festie ta andran batzuk hor gizona kartzelan ta, ta ibili daure apur bat hor e zafarrantxue, ta ba tabernan e gixon batek: “gonbidau inbiotzuet, “Urrixe” hil da” ta ez dakit zer ta badakit zer, ta harei be gero aiuntamentura deitu otsie, geitu otsie, ta ba nire ama izete zan holan apur bat ixilaue ta ha ez otsien, nire amari ez otsien deitu, baia bestiek Gorrixen ama ta, ba, Rusuena ta, aiuntamienture! Erue aurezan e ba, han tabernan ibili zien fiestan ta “Urrixe” hil in zala ta, Ilfonso zan, han Adunako lehengusue zan. Ta, ha hil zala ta banderiaz, neu be akordetan naz! Zelan zabaldu ioskun erakusten erun oskun maistriek bandera horriaz ta ba, besten bat es oskun eruten, baia haixe bai, erun oskun! Haixe erun oskun ta ikusi noan neuk be banderiaz! Iasta, ta gero bueltan zera ta batei, Gorrixen aite, ama, aite ta Rusuenai, Gorrixenai ez otsien ebai ulie, beste Rusuenai ulie ebai otsien! Orduko denboran! Hori, ointsu hil da andrie! Bai, erreketieke jun ziela hara ta ulie ebai ta kito! Ba bestien e gixona be kartzelan alkatie izen zan hemen orduko denboran ta ba alkatien andrie

zala ta ba, ulie ebai ta kito! Ez? Holako kontuek hemen gerra denboran asko pasau die.

3.2. Aita Bilbon eta Segovian preso

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/006
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:10:16. **Bukatu**: 00:12:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gorriak zeuden alde batetik, eta karlista eta erreketeak bestetik. Aita Bilboko karmeldarren komentuan egon zen preso, eta handik Segoviako kartzelara eraman zuten.

Transkripzioa
- Ta orduen nortzuk ibil zien hemen, reketiek?
- Hemen ibil zien e, gorrixek eta ba karlistak. Ta reketiek ba ba karlisten fabore!
- Ta zuek ze eduki zenuen gehixen bat, reketiekazta. Hemen jendiek ze euki ebazan problemak gehixenbat reketiekaz-eta?
- Bai, hemen bertakuekaz, baia ni neu horko gauzak ez dodaz akordetan, nik esan daurezenak, bai.
- Eta orduen jentie berton, ez zan ibilli Bilboko kartzeletan-eta?
- Bai, akordetan naz ni, ba, nire aite egon zan Karmelon. Ta joaten gintzezan, nire amagaz-ta, ba ni txikitxue ta asto ganien Zeanuriraiño, ta izerrak ta, akordetan naz ba seiretan egoten zan hor tranbi zahar bat hor, Zeanurin. Ta hemetik Malena ta, joate gintzezan zerera, Bilbora joateko Zeanurire ta ni asto ganien joaten nintzen, ta akordetan naz baten izarrak egon ziela, horrexegaz akordau eiten naiz e! Ta joaten gintzezan e hara, Karmelora. Ta gero Karmelon, akordetan naz ointxe be egon zien jente asko han barruen, barruen, barruen. Ta Karmelo da han fraillien lekuen egon izin zien horrek, egon zien-ta. Han egon zien pasillo hauundixek, ta jentetan han barruen egon zan ta, ba ni neskatue ez dakit zer ta, ba gero, egon zien han bentanak be haundixek, ta bentanak holan egon ziren lelengo burdiñezko barrotiek. Ta gero egon zan alanbre txikitxue, hori konejuei iminten jakiena modukue? Han, horrexegaz akordetan naz ni. Ta, ba gure aitek be esango osten zeozer, ta ba amak esate auen: “ba, zoiez zu alkatiana, ta Urlixana ta, ba nik ez dotela ezer in”, ta ez dakit zer ta badakit zer ta konduktie ona emoteko ta zer-ta. Aitek e, amak esate otsen seguru: “zuk ez dekozu lagunik iñor be!”, ta ez dakit zer ta badakit zer ta badakit zer! Ta ba bueno, hiru urte in oazen.

3.3. Amak idazten zituen herriko presoentzako eskutitz asko

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/007
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:12:23. **Bukatu**: 00:14:36

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Aisia » Kultura » Idaztea
  Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena**: "Doña Juana la Loca"ren gazteluan egon zen preso aita. Igeltsero peoi eta abeltzain lanetan ibili zen kartzelan. Segoviara ez ziren joan aita ikustera. Amak bazuen eskola eta aitari sarritan idazten zion. Herrian idazten ez zekiten andreei ere laguntzen zien amak.

Transkripzioa
-Gero handik, Segoviara erun abezan. Ta aitek esaten euen animalixek moduen ba, trenien, bagoien, iasta! Bagoien e! Ta hara joan zienien han, ba, etxie zala doña Juana La Locan etxie, kastilluen egon zirela. Ta ba han arregletan-ta ba bera apuntau zala albañil batiaz, berak ez zekixen ezetan, baia ibiltearren han kanpuen ta, ba aiudante. Ta Galdakanokue zan albañil hori be ta, ederto ibilten ziela han kanpotik. Ta, ba, han in auriela ba gero konejuek eta imini aurezan ta behixek edo ez dakit zer ta, han in ioazen hiru urte!
- Baia hiru urte Bilbon ta gero beste hiru urte Segovian?
- Ez, ez, hiru urte danakaz.
- A danakaz
- Danakaz, bai, bai, bai.
- Eta, han egoten zan bitartien Bilbora joate zinien baina Segoviara?
- Segoviara ez zan jun ama be. Ba ezin joan orduen! Ta han, ba ardixek eukite genduzen ta, ba dirurik be ez zan egongo joateko ta pentsau bez joaterik-ta. Gure ama ba ordukue izin arren eskribiduten ta ondo ekizen, ba ademas egon zan e bere osaba abadiaz e Santa Lucia de Allermon han Llodixotik gora. Ta, ba, bera akabau hango eskolakue ta, ba gero Llodixora be jute zan estudixetan ta esaten otsiela: “Hau, e, Epifanatxioi e”, Epi jakon izena ta “ Epifanatxoi e maistra erakutsi /biotsau/ bihar dotsau”, baia gero nok pagau falta, nok pagau falta ta, baia asko ekixen eskolan, ta gure ama eskribidu ta eskribidu, ta hemengo andrai be eskribidu otsen kartak gizonai.
- A bai?
- Bai, ze hemen danak, Malenak be ez zekixen, ta Enkarnzionek be ez zekixen, Enkarnazion zan Gorrixen ama. Ta ez zekixen eskribiduten ta leiduten bez, ta ba gure ama ibiltze zan haiei eskribiduten ta bueltan, harek gixonak ekixien. Ze, Malenan gizona sano zan jakitune, ta Gorrixena be bai ta ba, andrak ez zekixen leiduten ta eskribiduten bez. Ta gure ama eskribitan harena ibilten zan, ta leidu be bai kartie in biher! Ze ba ez zekixen ta!
- Orduen e, kartak eskribidu ta heldu, heltzen zien?
- Bai, bai, bai.
- Orduen e allegetan jakozen.
-Bai, bai.

3.4. Aita kartzelatik bueltan

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: UBI-005/008
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:14:36. **Bukatu**: 00:16:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: San Pedro egun batean bueltatu zen aita kartzelatik etxera. Bera nola agurtu zuen gogoan du, baita herriak eman zion harrera ere. Amak manta bat bidali zion senarrari kartzelara, bi zatitan erdibituta, osorik handiegia zelako.

Transkripzioa
-Ta akordetan naz etorri zan egunien! Ba, San Pedro egunien etorri zan da, ba, izeko Felisa, zuek ezautu dozue? Ez. Hemen, ba nire aiten arreba bat e, hor, Zeanurin biziten zan ta, ba erungo osten San Juanetan hona etorrite egun batzutan. Ta etorri nintzen, San Pedro egunien, ta nun topetan doten etxien! Ta akordetan naz holan hobatu ostela. Iñok jakin barik etorri zan e! Ba, han e trenen baten sartu ta allegau zien, zelan edo halan, ta holango kontuek. Ta topau noala etxien e ba, gizon pillo bat egon zien han ta andrak eta, han e gure etxien hor Agustiño bizi dan beste etxien biziten gintzezan gu. Ta ba jente pillo bat topau noan, akordetan naz etxien topau noala. Ta gure amak ba orduko denboran ba han be hotz egongo zan. Ta, ba, paketie be bilduten otsen, ta gaztaie ta be bai, ta zeozer bilduko otsen ta. Mantie be erdibitute bildui /bizan/ biher zan, ze mantie osuek ba ez dait ba, pixu gehixau? Ta mantie erdibitute. Bueno, bueno...
- Orduen mantie erdibitxu ta bi paketetan Segoviara?
- Bai, bai. Orduko kontuek.
- Ta zelan heltze zien hara gauzek, trenien ? Edo...
- “Por correo” bielduten eurien, ez dakit nik zelan allegeta zien, ez dakit! Ez dakit zelan allegeta zien.
- Ta bera Bilbotik Segoviara zelan eroan abien? Trenien eroan abien-edo.
- Trenien animalixek modun ba! Ta han topau haren e patixuen e, gizon bat estaka haundi batiaz holantxin, ba, ba, ba berak esan ixuen, gure aite, nire aite fuertie zan ta “obatuko banoskixo botako noke hortik ziher!”, e? Ta holan estakiaz, patixuen. Ba han e jente inuxente-inuxentie topau oala esan eban. Inuxente-inuxentie.

3.5. Etxean ez zuten goserik pasatu

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/009
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:16:32. **Bukatu**: 00:18:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Bilbon lauzpabost hilabete eman zituen preso bere aitak. Etxean ardiak zituzten, eta aurrera atera ziren goserik pasatu gabe. Herrian okerrago bizi izan zirenak egon ziren.

Transkripzioa
-Ta, han egote ziela txikoria, han ite aurien han kanpuen egote zan txikoriak, ba han ereinde edo, hemen patatak moduen-ta, andrak ibilte ziela ba ezergutxi-gitxi irabazite tarraz atxikorixe bilduten lurrien ibilte ziela. Hori esan auen, bai. Ta han pasau ebezan, hiru urte. Han be, Bilbon e, ba lau bost hilebete edo sei edo, holan ingoazen.
-Ta beste danak Segovian?
-Bai.
-Ta zuek bittartin bost umiek amagaz?
-Bai, ta hemen e ardixek eukite genduzen ta nire ba neba bixek e fiñien einde ba pastore einde ba, ba holantxi! Ta hemen ba danak egon zien holantxi, ta ba guk ba diruik ez gendun euko, baia jateko be bai, ta gero saldu be bai eiten die ardixek eta noizik behinien,ta beste batzuk txarrau askoz be. Askoz be txarrau, ta ba goixen zerue eta behixen lurrie ta holantxi, ezebez, ta erdi gosez hementxe ta holantxi, holantxi. Holantxi danak.
- Orduen goserik ez zenduen pasau.
- Gosie ni neu txikixe nintzen ta ez, baia esaten daurie nire nebak eta be, gose gosie-edo ba gosie ba, gosie, gosie tremendue be ez baia gauza haundirik be ez zan egoten hurrien. Ni neu ez naz akordetan, ez naz akordetan, baia gose gose haundik bez, baia gauzea gauza asko bez. Hori esaten daurie nire nebak-eta, ta beste batzuk esaten daure Pepitak eta Antonia Kalek eta harek esaten dostie, ba gurie etorten ziela ta nire amak ba e, talue badakizu zer dan?
-Bai, bai.
-Talue ta ogixe edo emoten otsiela ta, ba eurenien ez zala egoten, talue ta gaztaie. Ta eurenien ez zala egoten ezebe. Hori esaten osten niri. Ba bueno...
-Euki ez.
-Bai, bai.

3.6. Herriko idazkaria Derion hil zuten

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/010
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:18:24. **Bukatu**: 00:21:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Udaletxeko idazkaria euskalduna zen eta Derion hil zuten. Haren familiak gaizki pasatu zuen aurrera ateratzeko. Hainbat herritar egon ziren kartzelan. Ubide bizi-alargunen herria zela dio.

Transkripzioa
-Ta Gurutze [...], "ya sabes quien es", horren ama zan gizona hil ein otsien zerien ba, Bilbon. Bilbon e kartzelatik erun Karmelotik ta, batzuk egon die Larrinagan ta beste batzuk Karmelon be egon zien orduko denboran. Ta erun otsien zerera, Derixora ta hil, ta kartie eskribidute itzi otsen e, sekretarixue zan, ta hori zan Manun aiten anaixie, horrena be! Ta sekretarixue zan ta ba eskribidu otsen kartie eskribidute ba Derixora doiela, erungo auriela, ez dakit zer eskribidu otsen. Ta etorri zan etxera,

mahaixe be ez zan izengo barrixe, joten dau eskuaz ta jo ta jo ta mahaixe apurtu ein zauen. Ta horrek be ezebe barik agertu zien, ze lehen han egon zien Sondikan e sekretaixo, baia gero ama be hor, hortxe etxien ta ezebe ez zauen eukitan, behi bat edo bi, ezebez ta ezebez ta ezebez, ta ba miseri hutsien. Ta lehen ondo bizite egon da, han sekretaixo, baia sekretaixo zalako haixe be ba, ta holan sekretaixo euskeldune aldekue ta holan, bai. Ta ha be kartzelan hil auren. Ta hemen Ostatuko etxien egon zien, aite ta semie be kartzelan egon zien, aite ta semie. Ta beste Gurutzen amen nebie ha be kartzelan egon zan, danak hamen kartzelan egon die. Danak kartzelan. Bai, kartzelan asko, ta andra bizi-alargunen herrixe izen zan hau, hamazortzi gizon egon zien kartzelan, seguru. Ta nire aitek esate auen han Karmelon esaten otsien ez bentanatatik ez ibilteko begire ta ez dakit zer ta badakit zer ta. Hortik kanpotik, kanpotik han pasietan gizonak, holan, eskopetie holan deuke edo pistolie o ez dakit zer, ta ikusi auen, Morokillen etxien bizite zan e maixu bat, don Kornelio, ha be ikusi oan zeraz eskopetiaz han bueltaka.
-Biloba: Ubideko bat bueltaka?
-Ubideko bat bueltaka, bai, karlistak horrek be. Ba hor Maguregi futbolistien Maguregi aldekuek ez, Ibargutxi aldekuek, andrien, aman alderdikuek. Ta haren nebie, bueltaka berak ikusi auen hor kanpotik, ta baten bat holan burue ataa eban holan be baten bat hil auren seguru Karmelon, tiroaz, banba!

3.7. Ubideko kanposantuan hildako soldaduen gorpuak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/011
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:21:05. **Bukatu**: 00:23:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Gerra denboran, iluntzetan hildakoak garraiatzen zituen kamioi gorri bat gogoratzen du. Kanposantua hildako soldaduz beteta omen zegoen. Gerran hil ziren hiru mutil ubidearrak aipatzen ditu.

Transkripzioa
-Horrexeaz akordetan naz ni gerra denborako kontuekaz. Ta gero akordetan naz gerra denboran be, ba gu hantxe etxien biziten gintzezan ta illunkeran ekarten auezan kamioiaz hillek, kamioi gorri bat, ta “hortxe dakarriez hillek” esate auren, ta horrexegaz akordetan naz, illunkeran ekarten auezen. Ta gero kanposantuen eote zien, ba holan burnitxo bategaz ta hemen eukiten auen burnie holan arteza ta gero holangue zera eukiten auen ta hemen eukiten auen numerue. Baia beteko zan e hortxekuekaz, ba soldauekaz! Kanposantu dana beteko zan e soldaukaz.
- Orduen bertoko jente asko hil abien?
- Ba bertakuek ba, hor, zerien hil die bertako mutillek gerran-edo, batien bonbiek esplotaute edo ez dakit zer, hiru. Ba bat, bat hemeko, hemen biziten zien, hemen biziten zien lehenagokuek, Ameriketara jun zien haren seme bat. Beste bat zera, Txistun osabie, han. Ta beste bat zera, Francisco Lekuen zera, hori egon zan soldaue, ez dakit ba Madrilen o ez dakit ba non egon zan ta etorteko egon zala ta zera, ba polboriñek-edo esplotau aurela

ta ha be hil zan.
-Biloba: Baia ez zan izengo gorriena.
-Bestiena, bestiena. Ha soldadu dauela, han egon zan da ba hil zan ha, holan polboriñek-edo esplotau auela-edo.
-Ta hor kamioi gorrixen ze ekarte auezan, soldaduek?
-Hillek, [egurrek tira moduen] holantxi! Ni akordetan naz hoixe! Bai.
-Ta nortzuk ibiltzen zien soldaduek ekarten?
-Ekarten? Haurek izengo zien! Ez dakit ba nik!
-Ez zan izeten igual herriko jentie-edo?
-Ez, ez, ez. Haurek, haurek ibiliko zien.
-Ta gero kanposantue beteta.
-Beteta. Bai, ta holantxe egoten zien kurtzek. Ta gero oin ia ez dauz harek, kendu auezan, antza. Holantxe burdiñe ta gero holan eukite hauren, holan, holantxik eukiten auren ba hor numerue eukiten auren. Bai.
-Izena euki biherrien numeroa?
-Izena edo numerue, numerue eukiten aurien lurrien. Numerue aukiten aurien, holantxik, burdiñezkuek zien. Bai, ta gabien ekarten auzan, illunkeran, hillek. Horrexegaz akordetan naz.

3.8. Francorekin umeak beldurtzen

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/012
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:23:34. **Bukatu**: 00:25:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Zeanuriko hiru osaba kartzelan egon ziren. Abelintxuren amamak bere ilobak beldurtzeko 'Franco, Franco dator'! esaten omen zien.

Transkripzioa
-Ta nire amama, bakizu hor ibili zen, ba eukin azen semiek bi, hiru kartzelan, nire osabak. Ta biziten zan Zeanurin hantxe, Kapote bentan tian etxien goratxuo hantxe bertan. Ta ba zera, Altunoste badakizu non dauen? Altunosten ta hor danien basuetan ta hor danien hillek topetan! Andrie, ba zenbet urte aukiko auezen ba, ba semiek euki bauezan ba hogeta hamar urte ba bestiek eukiko auezen ba berrogeita hamabost edo hirurogei! Hillek topetan hor basuetan. Ta gero oin esango dotsut beste, hori da egixe e! Umiena kontako dotsut oin. Ba ezkondu zan bere alabie, nire izekue, ta ba ezkondu zan ta Zornotzan bizite zien hantxe kanposantuen inguruen, han, estaziño onduen. Ta, ba, baia ordurako bizi zien lehenengo hemen Zeanurin, ta umiek Zeanitik etorri zien San Juanetan hona. Ta ba umiek ba urte bi edo hiru edo eukiko auzen, rubixo-rubixue, ta guapo-guapue zan ta ba ama ta alabie etorten zien ta ba amama hemen itxi ta ume horriaz, bere ume horriaz ta ba bera biherrak iten jute zan etxera ta, ba gero ume horrei ba eingoan ba “hau gure dot o ez dot gure” ta “ixilik e! Franco! Franco! Franco dator!”. Hori egixe da gero e! ixin de, oin esaten dana moduen “el lobo”, “Franco, Franco dator e? Franco, Franco!”. Baia horreaz akordetan naz. Nire amamak umie bere alabien umiei, ba hiru urte-edo,

holango, ba negarrez edo izengo zan zeozer izengo zan. Ta “ixilik e?” ez dakit zer ta badakit zer ta ba lo edo “ez dot gure” ta ba “lo e! ez dakitz er ta Franco, Franco dator!”. Pentsa eizu zelako Francon e, berak akordauko kontue da hori e? Ta “Franco, Franco!”, umiei, bueno bueno.
- Harek be, non nondik hartuko auen hori bildurre-edo, entzunde-edo.
- Harek entzun ez, bere kauten, bere kauten. Ze hari iñok ez otsen esan hori.

3.9. Txapel gorriak elizako kanpaiak jotzen

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/013
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:25:46. **Bukatu**: 00:28:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Francoren tropek hiri handiren bat hartzen zutenean, txapel gorriek herriko elizako kanpaiak jotzen zituzten. Txapel gorriarekin jolasteko gogoa izaten zuten umetan. "Intendencia Militar" bere etxe ondoko horma batean idatzita zegoela gogoratzen du.

Transkripzioa
- Ta hemen, batien, Burgos hartu daurela ta, horreaz akordaten naz, Madril hartu daurela ta, ba “los de, como dirian, nacionalistas”-edo,” no, nacionalistas no, los de, los de Franco”! Kanpaiek eta joten aurezan! Kanpaiek bueltaka ibilten ziren hemen ta ba horrek bestiek txapel gorrixegaz ta jute ziren hara kanpaiek joten batzuk, ta bestiek e hemeko jentie ba oindiño gixonak kartzelan ta ixil-ixilik etxien negarrez. Ba kanpaiek ba “Madril hartu daure” ta ba “Burgos hartu daure” ta kanpaiek joten juten zien txapel gorrixaz. Ta oin beste kontu bat ba eskolan baite, egote zan han Euxebi bizi dan etxien han, ba Bilboko bat harek karlistie izendakue gixona, baina bueno, bere llobie-edo etorten zan Bilboti ta txapel gorrixez ta, eskola be etorten zan, ta ba guk ez genkixen zer zan txapel gorrixoi ta ezer ta geuk be txapel gorrixe ipinteko ganiaz berai kendute! Hori egixe da gero! Bera txapel gorrixegaz etorten zan ta geuk be kendu eiten gontsen ta geuk ipinteko ganie! Umiek gintzezan ta ze eingozu ba? Ta ba hoixe! Bai.
- Baiña iñoz jantzi barik txapel gorrixe.
- Ba, pentseu bez, pentseu bez, baina goguaz bai! Gogue bai! Ez genun jakiten zer pasaten zan be-ta! Ez genun jakin zer pasaten zan ta be-ta, bai.Ta hor elizan e, elizan aukiten auren e zera, hor e ba soldauek eta, nik hori ez dot ikusi, soldauek eta ba hor eukiten aurezan fiestak eta almazena-ta. Hemen, hemen etxien be iminten euan lehen, hor letrerue harri baten, gero borrau eurien guk e erosi ta gero, “ intendencia militar”. Bai hementxe harrixek eukiten auen eskribidute holan oin moduen esprai edo ostantzien!Holan eukite auren letrerue! Bai.

3.10. Ubidetik Trapagaranera ardiekin

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/014
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:30:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Legution (Billerlen) eta Ubiden aldi berean egon zen frontea. Ubide soldaduz beteta egon zen orduan. "El Abuelo" aireplano handia ere azaltzen zen Ubideko zeruetan. Bonba asko bota zituzten herrian. Orduan Trapagaranera ebakuatu zituzten ardiekin batera.

Transkripzioa
- Ta hau etxie zeozer zan han sasoien?
-Ba hau izete zan aberatsun batzuna, ta etxie haundixe izengo zan ta ba sartuko ziren hona militarrok eta kito! Hemen e soldauekaz ta militarrakaz-ta beteik egoten zan seguru. Ta ha txaleta neusixe, ha ixen zan e ba “como cruz roja”-edo, “como hospital” edo holan, holan. Hemetik Billerlera ibilte zien konbatiek, Biillerle eta hau izen zien frente, bai.
-Orduen frentie eduki zenduen.
-Bai. Hau zan frentie seguru, bai.
-Ta hemen mendixetan edo egon zan-edo.
-Ba mendixetan, hemetik ba Billerlera “cara a cara, cara a cara”. Ta hemen hillek asko egon zien seguru, bai. Ta gero akordetan naz ba, ibilten zana hori entzutie nik, hori neu akordetan naz, aeroplano haundixen bat ibilten zan orduko denborako haundixe. Ta, ba, “ontxe dator el abuelo!”. “El abuelo” esaten otsien, ez dakit ba, aeroplano haundixen bat-edo, “El abuelo” esaten otsien aeroplanuei, ez dakit ba zegeitik! “Bum, bum, bum”, akordetan naz baju-bajutik holan bueltak emoten-edo, ez dakit zertan etorte zan. Ta hemen be bota auriezan bonbak e? Hor Arraikon be bai, da hori plazan egote zan oin frontoiko etxie zan ba, zan Felicianan, Bitorio ezautu dozu zuk, bai, Bitorion ama ta bizi zien ba, hortxe, hor frontoie dauena ez parzuelie dauen lekuen, hortxe, hemetik alderditik zan Latxan, Latxan parientie. Ta han be bota hauren, ze batzokixe zan lehen Latxan alderdiko hori hemetik alderdikue, ta ba bestie Bitoriona ba bixek apurtu zien, bixek apurtu zien, bai. Hemen bonbak asko bota daurez, bai, asko.
- Orduen jentiek ze in eban, etxie galdu?
- Ba, akordetan naz ni juten gintzezela zerera, horra hara Barrenetxeko zeria be, “a la cueva”. Akordetan naz juten gintzezela. Ta gero, hemetik jun gintzezan ba, ba, ebakuaute, ba hemetik hasi ta Zeanitik (Zeanuritik) ta ez dakit zer ta noaiño! Ba, akordetan ni jun gintzezela San Salbador del Valleiraño.
- Non dau hori?
- Hori dau, ba, han, nora esango dotsut, Barakaldotik aurrera, nora esango dotsut, ba Portugaletetik aurrera, aurrera. Ta handi basuek dauz handi, ba ze esaten jako harei mendixei-ta, ontxe ez naz akordetan, handik gora dauz funikularra be badau handik gora. Ta handik egon gintzezan ardixekaz-ta, ba pastore.
- A bai?
- Bai.

3.11. Aita Gorbeian artzain

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/015
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:30:49. **Bukatu**: 00:33:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Aita kartzelatik irten eta gero, Gorbeiara artzain joan zen, eta Guardia Zibilak eskuak lotuta ekarri zuen Ubidera. Gerra uztailean hasi zen, eta azaroan ebakuatu zituzten Trapagaranera.

Transkripzioa
- Ta gero, nire aite, nire aite ba gerrie akabatute etorri zan, etorri zan, ta buelta, ta buelta! Ta bizite gintzezan hor etxien ta gu etorri orduko ba horrek Otxoatarrak biziten ziren seguru hor, harek be, ba ezebez. Ta gero, ba aite joan zan Gorbeixera, ba, betiko modure! Ta Gorbeixetik ekarri auren Guardia Zibilek zertute, eskuek lotute. Ze irizten dotsezu? Gorbeixetik ekarri daure bera ta bera ta Patakonesan ba horko zera, Markitos, horrek Julenen osabie, osabie, Julenen osabie. Gorbeixetik, eskuek lotute. Akabo ze! Ta gure aitek ez auen gure gero gerra kontuek berbaik be ein gure, esaten oan “berotu eiten dostie ta, ez dot gure jakin ezebe”.
- Akordu txarra.
- Bai, bai, danak txarrak, danak txarrak.
- Ta orduen e karo, zure aitte pastorie zan.
- Bai
- Orduen ebakuau noiz in zeñien, gerriek urten ebanien?
- Ba hemen urten auen ba, juliuen ta Domu Santu egunien jun gintzezan hortik beherantza ba burdixen hartute geure traste zaharrok Zeanurire lehenengo. Hara, bere, ba komisarion lekurantza, hantxe lehengo egunien edo egon zentzien hara, ha etxie inaugurauta zerien?
- Biloba: bai, bai.
- Ba harexe ondoa, bai, haraxe ondoa! Hangue zan ama ta, hangoxe bertakue. Ta ba haraxe, akordetan naz han be egon gintzezela, ta gero handik be ba hemen gerrie bertan-bertan ba handik beherantza beherantza atzera. Ta bueltan etorri zan ta Gorbeixetik ekarri auren, ta gartzelara artez, Karmelora. Ezer jakin barik. Ta berak esaten auen, “nik jakin banaben neuri in biher ostiela zeozer etorko nintzen bai! Etorko nintzen bai!”. Pentsau bez, berak zelan ez auen in ezer!

3.12. Trapagaranen bizitzeko leku finkorik gabe

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/016
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:33:05. **Bukatu**: 00:35:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Trapagaranera oinez joan ziren astoarekin eta ardiekin. Hurrengo udaberrira arte, han eta hemen egon ziren, leku finkorik gabe. Handik itzuli eta aita kartzelaratu zuten. Etxeko inork ikusi gabe eraman zuten preso.

Transkripzioa

- Ia, baina... Ta Zeanuritik hara, San Salbador del Vallera-edo.
- Bai
- Zelan joan ziñien?
- Oiñez! Oiñez ardixekaz! Ta astuaz, astuaz. Ta ni akordetan naz ez dait ba non izengo zan , ba han baso baten be lo in gendule, ta ba lo in gendule, han danok! Ba mantan baten azpixen, danok! Lo in gendule bason baten be, hori akordetan naz, ez dakit non izango zan!
- Nortzuk joan ziñien, zazpirok?
- Ama, bai,danok! Ama ta aite ta danok!
- Ta amume ta atxitxe ta be bai?
- Ez, amama ta aititegaz ez gintzezan bizi gu. Ez, gu hemen bizi gintzen, ta amama Zeanin (Zeanurin) bizi zen.
- Orduan zuek bakarrik?
- Bai.
- Ta zenbat denbora egon ziñien han?
- Ba handik hasite ba Domu Santuetan jun hemen ta etorko gintzezan ba udabarrixen, udabarrixen.
- Ta nun egon ziñien bitxartien?
- Danien hor, edozein lekuten. Edozein lekuten, bidien hor, joan ta etorri ta etorri ta joan bidien, edozein lekuten.
- Ta beste famili batzukaz edo egon ziñien?
- Ba egon gintzezan e hor Zeanin amen e, amen ta, ama ta ama ta zeren aman ta aiten etxietan, ta gero handik beherantza jun biher zala /bizala/ handik be ta, gero han San Salvador del Vallen be euki genduzen parientiek, ta harenien be egon gintzezan ta mendixen be bai ta, edozein lekuten! Egon. Jitauen moduen, bardin-bardin, bardin-bardin!
- Eta han zauziela jan, ze jaten zenuen?
- Ba, ba ni ez naz akordetan, jango gendun esnie ta eukite genduzen ta, ba esnie ta gazta batzuk be bai ta. Ba nik zer dakit ba, azurixek be eingo aurezan edo ardixek-edo, ez dait. Ta ba holan kontuek.
- Ta handik bueltan Gorbeixetik aite...
- Aite kartzelara.
- Kartzelara
- Bai.
- Eta zuen aurrien hartu eben aite? Edo..
- Ba gu hemen etxien biziten! Hemen, ta guk ez gendun ukusi eruten. Guk ez gendun ukusi eruten. Ba pasau auren kartzelan ta ba hemetixek bertatik baina guk ez genduk ukusi eruten, amak bez, amak be ez auen ukusi.
- Ta zelan entera ziñien?
- Ba berak, berak, ba ez dait ba nik , eskribiduko auen edo, ez dakit, ez dakit ze ixen zan.

3.13. Arabara gari eta patata bila

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/017
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:35:38. **Bukatu**: 00:38:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Ubiden bonbardaketak zirela, erreka ondoko kobazulo batean gordetzen ziren. Ubidetik Arabara joaten ziren gari eta patata bila.

Transkripzioa
- Eta lehen esan dozu Barrentxikiko koban egon ziñela ezkuteta-edo aeroplanoak etorten zirenien-edo.
- Hor kuebatxo bat dau hor erreka onduen, hantxe egote gintzezan. Ta akordetan naz ni hemen aeroplanuek etorte ziela, akordetan naz.
- Ta ze etorten zien, Bitxori partetik edo nondik?
- Hortik etorko zien, Bilbotik. Nik pentsetan dot Bilbotik etor zirela.
- Ta hori kobiori zer da, haundixe?
- Ez, txikitxue. Txikitxue, ba gurien be ba bueno beste batzuk basora-ta.
- Ta zuek horra.
- Bai, akordetan naz, erreka errekan dau, hor zerien, bizi da Jabi Lekue? Hantxe-hantxe bertan dau.
- Eta hemen gerra sasoien be, hori Araban hain urre eukinde Billerle-eta, hemen estraperloa be mobiduko zan.
- Bai, hemen estraperluen gero bizi zan jente asko. Ta nire, akordetan naz nire aitek ta nebak-eta be, ekarte aurien horko, Arabatik ba hemen be hau herri txikixe izanda ta ez da egon hemen holan garixe ta, artue ta be gitxi. Jente asko etxe bakotxien ta gitxi. Ta krixeu be bai ta, krixeu ta krixeda-ta,jentie be bai asko ta ba zera, ekarten auren hortik, astukaz, hortik. Hemetik joaten zirean zerea, aireportu dauen lekureño juten zien, astuekaz, bai. Ta nire amak be esaten dau patatak-eta, bera aite kartzelan dauela beste batzukez, andra batzukez ta joan da. Ta gero batek ez zekixen horrek /esantsutenak/ esan dotsutenak , ulie ebai otsienak eskolarik bapez. Ta ba orduko denboran ba jun die bixek ta Araban erderaz, ta harek ez zekixen eskolarik be ta diru konturik be ez zeuan jakiten ezebe. Ta ba “zenbat patatie?” ta ba “ochenta” esan dotsie hurrien. Ta ba beste harek eskolarik ez zekixenak ba pezeta bat-eta gure amak esan dotsela “ ixilik zauz, ixilik zauz, ze hori holan ez da-ta”. Ta harek ba ez zekixen zentimoka ta zerien ta bestiek pezetie eskindu ta berak e ez, “ochenta” eskatu. Ta ba holako kontuek-eta. Gero nire nebak eta be jute zien hemen ekarten urune-ta, Arabara joaten zan, bai, bai, Arabara juten zien.

3.14. Arabarrak Ubideko errotara

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/018
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:38:21. **Bukatu**: 00:40:49

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Errotak itxita egon ziren garaian, Arabatik gurdietan ekartzen zuten garia eta artoa Ubideko errota baten ehotzeko. Errotako ugazaba karlista omen zen, eta horregatik omen zuen errota irekitzeko baimena.

Transkripzioa
-Ta hor dau errotie, ta Arabatik hemeko bertako Arabakuek, ez urriñekuek, etorten zien horra errotara. Ba gurdixekaz ba idxoten, ze hori be, neskie ixete zan karlista, ta horrek be errotie eduki euen libre, antza, ta gero Araban egon zien zarratute errotak, ta hona etorten zien burdixek ta burdixek eta ba zera ixoten garixe-ta, artue-ta. Etorte zien hona burdixek ta burdixek etorten zien. Ta harek ein joazen diruten, harek andriek, puf!
- Orduen e, berak ez auen euki prezinteta?
- Ez, berak ez, bera karlistie zan-ta.
- Orduen berak libre?
- Bai, bera libre. Ta Araban be errotak asko dauz, baina zarratute egon zien, ta horrek libre euki auen! Ta ba hori zan, Araba partien dau, baia errekie honantxe, beitu. Hau da, etxie hementxe ta Bizkaixe hementxe-hementxe-hementxe. Ta han ba hemen hemeko lagunek euki auzen, aiuntamientokuek eta ba libre, ta Araban hor errotak asko dauz, baia handik etorte zien ba ixoten, ta orduen e ba burdixek eta burdixek eta horrek andriek ein eban diruten!
- Eta zer errota zan? Errotien izena zein zan?
- Ba ez dakit ba errotie, ez dauko izenik.
- Eta orduen han sasoien hemen parajien Bizkaitik be ez zien etorten?
- Ez, hor e Ipiñaburu onduen be egote zien errotak.
- Baia zabalik?
- Bai, bai. Baten bat egoten zan, bai, baten bat egoten zan. Gerotxuau, gerotxuau, orduen baiño be gerotxuau.
-Ta errotako andrie uzaba andrie zan?
- Bai, uzaba andrie zan, bai.
- Bertokoa?
- Bai, bai. Bertokuei be ixoten ostien, baia hemen ez zan eoten gauze gutxi baño. Hemen ba jente asko etxe bakotxien ta ba, artue edo garixe apurtxo bat, besteik ezebez.
- Orduen e Arabatik jentie etorri...
- Etorri, zer etorri dxakon orduko denporan! Ta harek andriek bera ibili barik esate otsien ba “ehun kilo, ehun kilo dakaraz bai ta” edo berrehun edo bostehun, burdixek etorten zien-ta. Hartu bere, bere toketan jakona ta gero aurek ipinten auezan han ixoten! Ta gero harek bestiek iten joazen saldu! Berai toketan jakozan neurrixek hamarretik bat edo dana dalakue iten joazen saldu!

3.15. Guardia zibila etxean bazkaltzen

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/020
- **Iraupena**: 0:04:07. **Hasi**: 00:43:20. **Bukatu**: 00:47:27

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Aitak, kartzelatik irten zenean, hamabostean behin Legutioko kuartelera joan behar izaten zuen. Areatzatik etorritako guardia zibil batek etxean bazkaldu zuen, eta handik gutxira hil egin omen zen.

Transkripzioa

- Han Billerleko guarda zobillek beti ezetu dozuz zuk?
- Ba hor kuartela in auren berandutxo neure akorduen. Baina lehenau be egongo zien ze guardia zobillek hemen ibilte zien, hala ez dakit nondik etorte zien. Ze, hori, Billerleko kuartela ba ingo airuen akordetan naz, ala barriztu in auren beren-bere? Nik ez dakit. Hemeko mutil bat-eta akordetan naz albañela ibilten zala iten, baia ordun lehenau ibilten zien hemen guarda zobillek! Ez dakit ba nondik etorte zien. Lehen hemetik hona Ubidea aiuntamienture ta Billarotik etorte zien, Billarotik. Ta nire aite gero ba kartzelatik urten ta gero, jun biher auen Billarora, presentaziñue iten, oin iten dauren moduen “a la policia”! Joaten zan ba nik ez dakit hamabost egunik behin-edo, nik ez dakit zelan juten zan. Oiñez abarkak jantzite juten zan.
- Oiñez?
- Jun ta etorri.
- Barazarretik ziher?
- Bai. Hor atajue dau, neu be pasau naz-ta. Neu be Zeanurira amamana ta jun naz oiñez hametik sarri-sarri. Ta ba handik Barazarretik sartzen da beherantza ta atajue ta urtetan da ba errebueltie in barik holan artezien beheraiño, beheraiño. Ta juten zan ta gero, ba nire osaba batek badiñotso “ba nire uzabak daukoz guardia zobillek lagunek ta arteztuten boztezu, ba horrenbeste ez jun izeteko ba hamabost eguneik behin jun barik, ba hillien baten edo holan juteko”. Bueno, ba arteztu otsen. Jun zan ba hilien baten-edo, ta gero, ba horretan horretan ba gero gure zerak, amak-eta imin daurie, akordetan naz horreaz, ba aite kartzelatik etorri ta gero izen da, ta azurixe ta arroza ta azurixe ta ez dakit zer imin dau banketia, ba guardia zobil horri emoteko ta etor zan “con el tricornio”. Etorri da, bueno, bale! Ta alargune zala amak esaten auen. Ni akordetan naz egon zala. Ta ba alargune zala ta ba gosie. Ordun guardia zobillek be gose baten egoten zien, ta ba bueno, horretan ba zera ba bazkaixe imin duu, bazkaixe imin duu, ta, antza, ba estomaguen edo zeozer aukoan ba gose baten biziko zan be bai ta dana. Gurien in dauen betekariaz gaixorik plantau da ta haren ordez, haren kontsekuentzixen hil in zan. Eukiko eban /eukikoan/ zeozer iual ze bueno. Ta akordetan naz e handik, hor gure etxetik gorantza pasietan ibil zan illunkeran ba tripetako miñek edo ez dakit zer daukola-ta. Aitu dozu? Ta bueno, hoixe danok. Ta ba karo bazkaiten emon be eingo otsiezan gaztaien batzuk-edo, iual emongo otsien edo dana dalakue. Ta guardia zobille trikornioaz etorri zan.
- Billerlekoa?
- Ha ez, haixe zan Billarokue.
- A, Billarokue.
- Ha Billarokue, hortoko kontuetako Billarokuek ibilten zien hemen beti, beti ibili izen die Billarokuek bai. Ta oin be bai izengo balitzeke hau beste zeozer ta, ba oin ertzainek dabiltz, baia baia ha edo besti eta Billarokuek datoz guardia zobillek.

- Ta Billaron ordun kuartela egon zan?
- Bai, ontsura arte, oin ez dakit, oin ez da eongo ya!
- Biloba: Ya ez dau.
- Baia ontsurarte bai.
- Biloba: Oin hogei urte edo gehiau.
- Baia ontsura arte egon da, bai, bai.
- Ez dekot akordurik-ta.
- Bai, ontsura arte egon da, bai.
- Non egon zan ba kuartela?
- Hantxe, behien, erdi-erdixen.
- Biloba: Hotela dauen lekuen oin ez? Gitxi gorabehera.
- A, hotela ez dakit nun dauen ba nik!
- Biloba: Han “a la salida”, ez?
- Keba, behien egon zan.
- Biloba: Elizie pasau ta.
- Beherantza!
- Biloba: Bai.
- Beherantza bai.
- Baia Artearantz einda?
- Bai, bai.Ta holan ba.

3.16. Garagar kafea

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/021
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:47:27. **Bukatu**: 00:49:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Garagarra edo oloa zartaginean erre, kafe ehogailuan eho, eta kafearen antzeko zerbait prestatzen zuten. Benetako kafea San Juanetan-edo probatzen zuten. Azukrea jaten ikasi gabe zeudenez, haren ezak ez zituen larritzen. Ardoa bidetik garraiatuz gero, zergak ordaintzen ziren. Estraperloa mendiz egiten zuten.

Transkripzioa
- Ta estraperloan, bueno, lehengo estraperlora buelteta, urune ta esan dozu ta azukerie ta kafie, txokolatie ta…
- Ba gu ez gintzezan ba, jentiek horrek eskasaukoak azen, baina kafie gure etxien kafe… Badakizu zer eiten gendun? Ba hemen jentiek ze eiten auen? Sebadie ala orlue zan? Ez dakit, orlue ta sebadie diferentiek die. Ta, ha tostau zartanien ta molinilluen kafienien zertu, ta harexegaz kafie ein. Hori ikusi dot, gu ez horrenbeste! Ze ba gu esnie eratekuek-edo izengo gintzezan. Ta gu ez horrenbeste, baia hemen etxe askotan ite auren hori e! Ta ba kafie nik ez dait ba, San Juan edo hortokon baten kafe apurren bat erosten gendun ala ez, ba gu txikixek izen garenien ez. Ta azukerie be, ez gintzezan hortoko, ba dirurik be ez zan egongo erosteko ta ba zaliek bez, erakutsi barik, ikisi barik! Aitu dozu? Erakutsi barik ez, ikisi barik! Horretakon bat izingo zan, horretakon bat izingo zan.
- Ta azukerie ta holako gauzak?
- Ba azukerie estraperluen ta egoten zan bai, egoten zan bai. Ta olixue-ta,

ba zera, olixue hemeko gizon batek be ekarten auen ez dakit nondik, ta badakit nondik, ta urdaixe ta, dana egon izen da hemen estraperluen. Ta urune be hor errotan, gero saldu iten auen harek etxeko andriek.
- Baia hori estraperloan ez zan izango, edo bai?
- Ba nahiko estraperlo. Ta hemetik, hemetik, hor egoten zien fieltue egoten zan hor bidien ta orduen pageta auezan inpuestuek Bilbora pasetako be bai ta, horti-hortitxik ekarten auezan ta gero jentie kamiñotik etorri barik astuekaz ba hortik beste alderditik etorte zan ta ba hor, hortik, Arabako alderditik hemetik pasau barik hor Arratixa ta Bilboraiño astuekaz ibilten zien jentie. Astuekaz! Bai.
- Ta hori inpuestoa bidetik joan ezkero pagau behar izeten zan ezta?
- Bai, baina hori ardaueri ta, ardaueri ta. Baina ostantzien ez. Baia bestiek zien estraperlo kontuek, horrek ez zan inpuesto konturik. Ta ardaue ta holan, baia bestiek hortik astuekaz pasetan zien hortik, basotik! Basotik pasetan zien astuekaz. Ta holan jentiek patatak be, ba hau herri txikixe ta jente asko ta patatak be Arabatik erosten zien. Ta bueno.

3.17. Ubideko batzokia suntsituta

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/036
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:23:30. **Bukatu**: 01:25:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra denboran, Ubideko batzokia bonbaz eraitsi zuten. Abelintxuren aita inongo arrazoirik gabe eraman zuten kartzelara.

Transkripzioa
- Eta, lehen komentau dozu ez dakit, gerra sasoien edo ez dakit noiz izengo zan, hemen batzokixe egon zala.
- Bai, batzokixe egon zan hor plaza-plazan. Ta gero bonbie bota auren ta ha apurtu zan ta etxie egon zan beste bat ondo-onduen, ha be guztiz jeusi zan. Ta gero gu gerraostien han horko agietan-eta olgetan ibilten gintzezan. Eskolara juten gintzezan ba horrek agiek kuadrauek haundixek egon zien ta handik ganetik eta olgetan ibilten gintzezan. Ta gero bota auren plazie apur bat arregletako ta kendu auezan danak.
- Eta gerra denboran politika aldetik jentie batzen zan batzokixen eta?
- Antza bai, bai, bai. Antza bai. Gure aite ez, gure aite ez zan joaten iñora. Pastorie eta hantxe basuen ta etxera ta ez zekixen tabernara be joaten ta andra batek esan osten, Iñakixen amak. Ba bazan hortoko politiko haundixe ta ba esan osten: “bestiek be kartzelan ez auen eon biher, baia zure aite beti basuen ta taberna be ez zan joaten ta iñun bez ta ez zekixen iñoaz be ezebe ta, ta ha kartzelara eruen!”. Hoixe esaten osten. Ta behin amerikano batzuk eta be egon zien hemen ba hemeko bertakuek baina Ameriketatik ta ibilite ta batzokixe ta harek fundaute egon zien seguru. Ta eiten aurezan fiestak hor batzokixen eurek euretara.
- Ta andrak ta be egoten zien batzokixen?
-Bai, euren lagunek orduen. Ez holan danak ta ez, ba batzuk, euren lagunek. Euren lagunek, bai. Beste, beste nazionalista batzuk ta izin arren

be harek ez, euren legunek, holan. Beste andrak euren umiekaz nahikue dozena erdi edo handik gorako umiekaz.

3.18. Zorri erraldoiak kartzelan

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/044
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 01:43:00. **Bukatu**: 01:46:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Bilbora joateko, asto gainean joaten zen tranbiaraino. Abelintxuren osaba bat gaixorik etorri zen kartzelatik, eta urte gutxira hil zen. Aitak esaten zuenez, kartzelan txakur handi bat (pezetaren 10 zentimoko txanpona) zorrien gainean jartzen bazuten, zorriok txanpona mugitu egiten zuten. Egositako erremolatxak jaten zituzten kartzelan.

Transkripzioa
- Eta lehen komentau dozu tranbixe-edo, zeozer aipatu dozu lehen tranbixena, Arratixeko tranbixena
- Tranbixen juten gintzezela ba hara Bilbora joateko. Ta akordetan naz asto ganien ta izarrak egon ziela. Ni astuen juten nintzen hemendik Zeanurireiño ta gero han itxite gendun ba han frontoi atzien izeko bat bizi zan, ta ha be bere gizona be kartzelan egon zan ta izikuenien itxite gendun asto hori ta bueltan atzera hartu astue ta bueltan! Atzea gorantza. Ta ha nire aiten anaia, hori esan dotsutena frontoie ostien bizi zana ta kartzelan egon zan, gizon bat izan zen, ama zan txikixe ta, nik be aman antzera urten dot, ama zan txikixe, aite zan haundixe. Ta bere familixe be terriblie, altuek. Ta metro bikue bai, izengo zan. Gizon haundi bat. Ta etorri zen kartzelatik txarto, geixorik etorri zen, ta ba holantxi, ba holan biherrerako be bape zerik bez, inderrik bez ta ezebez. Ta esan otsien, hemen gero bueltan, bueltan medikuek eta sarnie daukela estomaguen. Ta gero, handik urte batzutara ba dendie, ta tabernie, ta bere andriek be imini biher zeozer ba atatako bizimodue, ta gero urte batzutara hil zen, bai. Ta ba esan otsien sarnie daukola estomaguen, ez dakit zer izango zan. Orduen sarnak be egote zien kartzelan-ta. Nire aitek badakizu zer esan auen kartzelan? Berak ikusi dauzela zorrixek, ba han be beti dau baten bat barre eiteko, ba zorrixek terribliek. Ta zuk ez dozuz ikusi horrek txakur haundixek kobrezkuek?
- Ez, ez, entzunde bai baia ez.
- Harek ganien imini bai ta mobidu eiten aurezela, zorrixek, hain haundixek ziela ta. Bai, nire aitek esaten auen. Gure aite ez zan hortoko zelebrie, gure aite egoten zan min batiaz hantxe egon beharra bera, bera hantxe egon biherra! Ba beste batzuk ba “mas llevaderos” edo nik zer dakit. Ta ba zorrixek ganien imini zera, zera txakur haundixe, ta olgetan, zer eingo auren ba, zer eingo auren ba. Ta esan dau nire aitek, kartzelan jan dauela berak egosite, erremolatxak. Franco, Franco eskegite be gitxi da. Ba patatak bez, erremolatxak jan dauzela berak Segovian. Erremolatxak, “como a los ganados”. Bueno, bueno. Ta gero Franco, Franco, nire amamak bildurre hartu ta umiei “Franco, Franco datorrela”. Hori ez zendun entzungo sekule, ba hori egixe da. “Que viene el lobo” moduen, bardin-bardin.

4. Lanbideak

4.1. Errazionamenduko ogia

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/019
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:40:49. **Bukatu**: 00:43:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Polizia
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Errazionamenduko ogia ez omen zen hain txarra. Abelintxuren nebak Arabatik estraperloa ekartzen zuen. Legutio eta Areatzako guardia zibil asko zebilen bideak zaintzen.

Transkripzioa
- Ta ez zan egoten arrazionamendu libretarik holan?
- Bai, akordetan naz! Emote oskuen ba ogixe honango erredondue etorten zan horra aguazillen etxera, Billarotik, zerien, autobusien. Ta honango erredondue zan, ta, nik ez dait ba, bakotxentzat txatal bat emongo zotsun, emongo oskun erredondue partidute ba txatal bat bakotxentzat, pertsona bakotxentzat. Diñot! Holangon bat izengo zan, baia akordetan naz juten gintzezela ogixe arrazionamientokue! Ta orixue ta be egoten zan arrazionamentuen, akordetan naz. Akordetan naz horriaz be.
-Baia ze eukiten zenduen, bakoitzak zuon kupoa.
- Bai. Ta nik pentsetan dot holan erredondue zan ogixe, kilokue izengo zan igual. Ta ha kilokue izengo zan lauentzat. Diñot!
-Ta zenbat denborarako ogixe zan.
- Ba egun guztireko!
- Egun baterako behintzat eukiten zenduen eguneroko ogixe.
- Ha egunerako ez, ha oantxe jan ta kito. Baia, aguantau gero, talue gero iten genduzen.
- Ta zelako ogixe zan?
- Ez zan hain txarra be. Ba holan, ilun antza barrutik be baia bueno, bueno! Oin iten danan moduen hortoko oin saltzen dauzenan antzekuek horrek, ze esate otsie oin? Horrek saixaz-ta? Ba hortoko klasekue izengo zan.
- Ogi baltza izeten zan.
- Baltza guztiz bez. Ez, guztiz baltza be ez zan. Ba erdiz por erdi izengo zan. Holan sai apur bat daukena. Ta holakue izeten zan hori.
-Ta estraperloana aittatu dozuz hori garixe ta artoa-ta.
- Ba nire nebak eta be bai. Ta baten nire neba batek esaten dau. Hor e, ba hortik bidien datorrela, Billerletik honantza, “Alto! Alto!”. Ta ba zera, gero denuntzixeu ta iten joazen horrek guardia zibillok hor ibilten zien pasitan, ta denuntzixau-ta. Ta baten ba baten bati nire nebiei “Que te voy a dar una no sé que”, ta “Yo también” edo esan dotso guardia zobilleri. Bueno, ba holan pasau zan seguru. Gero hameko neska batiaz ezkondu zan ha mutille, baia holan pasau zen baia, hemen guardia zobillok hemetik ibilten zien, Billerlen egon izen die guardia zobillek beti be. Ta hemen ibilten zien guardia zobillek beti be!

4.2. Haria, galtzerdiak, jertseak eta konponketak etxean

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/025
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:59:00. **Bukatu**: 01:01:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Galtzerdiak ere etxean egiten zituzten. Artilearekin hariak prestatzen zituen aitak. Garbitu, leundu, kardatu eta txabetarekin bueltaka-bueltaka haria nola egiten zuten azaltzen du. Hari harekin galtzerdiak eta jertseak egiten zituzten. Beste arropak jostunari eskatzen zizkioten egiteko. Abelintxuk etxeko gauzak josteko beste ikasi zuen gaztetan. Orduan arropa zaharrak sarritan konpontzen ziren.

Transkripzioa
- Eta horrekaz ibiltzen zien galtzerdixei zelan deitzen otsazue?
- Guk “galtzetiñek” esaten gontsen. Bai. Badakit “galtzerdi” esaten jakona baina guk “galtzetiñek”. Bai.
- Eta zelan eiten zenuezan horrek?
- Ba batzuk gizonak eta bazekixen, baia hemen gizonak ez zekixien. Ba gero lanie, aitek baekixen irun ta iten. Lehenengo ein bihar izeten /bizeten/ da garbitu ta gero holan eskuaz apur bat suabetu. Ta gero “kardak” esaten jakona zepillo kuadrau batzuk honan eitekuek, honan aitekuek, honan ein ta gero ba “txabetie” esaten jako, bai, holan txaramel moduko haunditxo bat. Holan e, ez dozu ikusi holan inde, gero holan iten dauriena ipinten? Nire aitek iten auen hori. Bai. Ta gero hariaz laniaz ba zerak in, galtzak. Ta hemen e jertsiek ta re iten auezan baina bueno.
- Bero-bero negureko.
- Bai, ta gero ba harek ba lehenaukuek ta bai baina oaingo jendiek ez dau gure, ze pikau eiten dauela ta harek laniek. Neuk be ibilite dekoaz haretakuek, pikau. Ez dakit pikaten auen edo ez, ez dakit.
- Zuek besterik ez zenduen euki-ta.
- Besteik euki ez ta ba haixe jantzi biher!
- Pikau edo ezebez.
- Ez, ez.
- Eta gero beste erropak eta ze iten zenduen, telie erosi ta josi-edo?
- Bai, bai, telie ta josi, bai.
- Ta nok josten euan?
- Hemeko joskille bat egote zan zera, Francisco Lekuen ama zan joskillie ta besten bat be bai hemen ta, ibilten zien josten. Ta gero ni, gazte-gaztetan apur bat ikisi nauen ta etxeko gauzek neuk iten noazen. Ba gurien be ba arropa zaharrak ta be josi nik asko eiten noazen orduen! Bai, orduen arropa zaharrak asko josten zien. Prakai be, ba hemetik honaiño zati berrixe-ta imini, zuk ikusi dozu hor baserrixetan? Ez.Oin dabizenan moduen horrek e zatixekaz?
- Bai.
- Orduen arreglaute. Bai. Bai, bai. Oin hor dabiz barrixekaz, baina orduen arreglaute. Bueno, hoixe.

5. Herria, azpiegitura

5.1. Garai bateko taberna eta dendak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/022
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:49:59. **Bukatu**: 00:53:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Oilo gutxi zituzten. Ardoa eta ogia tabernan erosten ziren. Geroago ardo-saltzailea etortzen hasi zen, ardo-txanbilekin. Orduko taberna eta dendak gogoratzen ditu. Urtegiko lanak jende asko ekarri

zuen. Tabernak ere ireki ziren orduan. Riañotar batzuek eduki zuten taberna Ubiden.

Transkripzioa
- Bestela zuek hemen orturik ta ez zenduen euki? Patatarik-edo...
- Baia, ba, patatie bai, baia nik pentsetan dot orduen oilluek be eukite genduzen bai, ez dait, dozena erdi iual. Baia oin beste arrautze in be ez auriezen iten, janik be ez jakien emoten, artaburu batzuk-eta, ba jan ezik ez dau arrautzarik be! Diñot e, pentsetenn dot, hori pentseten dot nik, ze arrautzak be gitxi egoten zien-ta, arrautzak be gitxi egoten zien-ta.
- Ta ardaue esan dozu inpuestoak ordaindu behar izeten ziela.
- Bueno, hori holan haundire, haundire. Guk ba gure etxien ez zan edaten ardau asko, tabernatik noz edo nozko baten erun eta kitu.
- Tabernan erosten zenduenien zelan erosten zenduen, litroka? Edo...
- Ba litroka, litroka. Ta gero, geruau ba garrafoi bat-edo, binoterue etorten zanien.
- Ze iten zenduen, tabernana joan eta ...
- Bai, ba litro bat-edo, ogixe be tabernan saltzen zan, ta ogixe ta ardaue-edo eroste zan ta kito. Aurek, zahagixe badakizu zer dan?
- Bai.
- Zahagitik botaten aurien.
- Ta botillara.
- Botillara, edo botara be bai, bai.
- Ta botille berak tabernakoak emoten otsun?
- Keba, etxetik eruten zan! Lehen lehen, nik neuk ez dot ikusi, baia hemen etxe batzutan egoten zan hortoko botilla baltz haundi bet, haratekue juten zan litro bi edo hirukue- edo ez daitz zemat, ala bost eukiten aurezan be ez dakit. Haundi batzuk, harek Ubidegoitikuek-eta. Bai.
- Orduen botillie hartu ta tabernara.
- Bai, bai.
- Ta orduen litroka eiten zenduen.
- Bai. Ta gero, geruau ba binoterue etorte zan ta ba garrafoie eroste zan.
- Ta han sasoien hemen zenbat taberna egon ziren ba?
- Ba, hemen egon die beti hori, herriko tabernie, gero hemen beste bat ostatue izeten zana. Hemen egoten zien ba bakarrik egoten bazien medikue eta abadie ta egoten zien hor. Ta gero beste bat han tabernie, oin Juan [...] daukon lekuen egoten zan seguro, hori ez dot ezautu nik, hori lehenau-lehenagokue. Ta ba holan.
- Ta dendak-edo?
- Ba dendie be egoten zan ba hementxe be bai ta han Otxoan etxie hori zerien, bizi izen dana Bernar? Han be egote zan, dendie ta tabernie, dana bat.
- Biloba: Ta Karetek be bai ez?
- Karet berak ez, hori obra denborakue zan, tabernie egoten zan hor. Ez, berak ez, obra denborako horrek bizi zien, lehenengo hortik etorri zien hona, hortik, Riañotik-edo etorri zien hona, ta hanguek zien harek hor egon zienak, tabernie. Hemen obra denboran jente asko egon da ta,ta tabernak hemen ta danien egon diez.

5.2. Aita abarkagilea zen

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: UBI-005/023
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:53:00. **Bukatu**: 00:56:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Orduko dendetan denetik saltzen zuten. Aitak larruzko abarkak egiten zituen. Abarken jostura, izurra, zulotxoetatik uhala pasatu, traila sartzeko uhala... Abarkak zelan egiten ziren azaltzen du Abelintxuk.

Transkripzioa
- Ta gero holan hemen tabernie ta dendie aparte egon zan beste, jateko dendien aparte beste dendarik-edo?
- Ez, ez, ez. Baia dana saltze auezan, zapatillak eta ba jaboie ta zapatillak eta ardaue ta ogixe ta danaK batera.
- Eta zapatillak eta abarkak eta hemen dendan erosten zenduezan edo ein?
- Nire aitek eiñ ite auezan hortoko narruzkuek. Baia gero gomazkuek, gomazkuek saldute aurezan hor dendan, baia nire aitek narruzkuek eiten aurezen. Beitu, honan bai, honan. Ta gero hau ixeten da hau puntie honan, ta gero hori puntie honantza eiten dau, hemen joskuriaz. Hemen joskurie ta honek honantza eiten dau. Ta hemen orpue, holan redondo antza, ta hemen ataten jako izurre.
- Izurre esaten dotsezu horreri?
- Izurre zer da? Zuk ez dakizu? “Un fruncido”. “Así, como un fruncido aquí, en el orpo”. “Como un fruncido a la abarka”. Horrek e, ume txikixenak ta ikusko dozuz zuk? Ba halakoxiek eiten auezen nire aitek be. Narruzkue ba behixena. Ta gero, ba holantxi eiten da ta holan ta gero hau honan, ta gero hemen eiten da hona, hona buelta. Ta gero hemen eukiten dau joskurie. Ta gero hemeti pasetan jako hona zulue iten jako, honan burdinatxo batiaz, ontxe ez dakit ze jakon izena be, holan da artez-artez-artez-artez ta handik pasetan jako uhela, uhala daneti. Ta gero hemen urtetan dau orpuen izurre, izurre. Ta gero abarkie kordela sartzeko traillie, traillie, beste uhel batzuk sartzen jakoz holan, honan, hemeti zera traillie sartzeko.
- Jarraitxu, jarraitxu.
- Hemeti traillie sartzeko uhal batzuk sartzen jakoz hemen, bat hemen hemen e punta-puntan beste bat, ta hemen be bai, ta hemen be bai ta orpuen be bai.

5.3. Urrunagako urtegiaren eraikitze lanak ezagutu zituen

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/029
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 01:08:46. **Bukatu**: 01:11:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- **Laburpena**: Bilbora eta Algortara joaten ziren gaztetan txangoan, eta orduan ikusi zuen lehen aldiz itsasoa. Ikusi bakarrik, familiakoek uretan sartzeko ohiturarik ez zuten-eta. Urrunagako urtegia eraiki aurretik ezagutzen zuen Abelintxuk paraje hura.

Transkripzioa
- Eta itsasoa noz ikusi zendun zuk lelengo biderrez?
-Nik itsasoa bastante gazterik, izikonera joaten nintzen Bilbora, barraketara, ta itsasoa bastante gazterik ikusi nuen bai. Bai, Algortara ta eruten ostien ta bai.
-Ta itsasora sartu?
- Ba ordun ez gintzezan sartuten, ikusi bakarrik handik. Bai.
-Ta hankatxuek-eta sartu bez?
- Ba ez dakit nik, ez, ez,ez. Ba paseuen juten gintzezan ta ba nire hango osabiek ta eruten oskun ta hantxe ba orduen nik ez dakit, limonadie erango gendun ze kasik-eta ez zan egoten orduen, hondiño. Ta limonadie-edo, zeozer osabiek zeozer ateako oskuen ta yasta.
- Eta gero, Billerle eta karo, gaur egun badau pantanoa eta, baina zuk hau zelan ezagutu zendun?
- Pantanue? Hor ezebe ez zan egoten. Ba pantanue erdi-erditik doie kamiñue. Bai.
- Baina lehen hori zuk ezetuko zendun ur barik-edo.
- Bai, bai, bai.
- Ta ze akordu dekozu?
- Ba hor ibilte zien obreruek bai, ta badakizu ze akordu deuketan? Ba hemetik Santa Grazi badakizu zein dan, ha zera astuek-eta dauzena, ba Santa Grazi, ha da Arkezto, ta han dau errebueltie. Ba etorri zan neska bat hor obran ibilikue ta zan lobie jefe batena. Ta ba ibilten zien, ibilten zien mutillek eta, ba gu be iual ibiliko gintzezan apur bet baina neskie zan holan e “un poco, revolucionaria”. Ta jun gintzezan baten horko pozu haundi batera ez gintzezan sartu ba? Goitik behera, ta esan nuen neuk: “Zeozer pasetan bajaku hil naitela ni hemen ze ostantzien “la que me va a pasar a mí en casa””. Ta jun gintzezan ba hortoko aszensor balde baten klin-klon beheraño! Ez, dakit zenbat metro izango zan ba ehun-edo, berrehun-edo, nik ez dakit zenbat izengo zien. Ta han dana ure zan handik itugiñe, harrixek ta urten gendun gora ta kito. Baina hemen ba hor ibilten zien kamioiek hara ta horra ta obreruek ta hemen ibili zien danak, ba pantanuen han ba paredoiek iten ta hara ta horra ta ez naz akordako? Bai, bai, akordetan naz ni.

5.4. Urtegiko eraikuntza lanak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/030
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 01:11:17. **Bukatu**: 01:13:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Ubide eta Zeanuri artean urtegiko 3.000-4.000 langile egon ziren lanak iraun zuten denboran. Langileen arteko liskarrak

izaten ziren, eta lanean bizia galdu zuten langileak ere asko izan ziren. Urrunaga, Nafarrete eta Elosu herrietako etxe asko urpean geratu ziren.

Transkripzioa
- Ta hemen hiru -lau mille egon zien seguru obreruek! Hemetik Zeanuriraiño! Bai, bai. Ta hemen egon zien orduko denboran, nik pentsetan dot etorri ziela munduko txarrenak be bai, onak eongo zien bai, jende ona be bai, baina beste batzuk kriminalak, hor batek kutxillue sartu otsela ta ibilten zien hor, ibilten zien. Batek kutxillue sartu otsela, ta holan ibilten zien. Ta hil be, ba han pantanuen be asko hilten zien seguru. Ba batien harrixek jo dauela, bestien ez dakit zer, bestien badakit zer, asko hilten zien seguru, bai. Ta bueno, ez dot ikusiko, hori ezautu dot hutsik dana. Bai, bai, bai.
- Eta han etxe asko geratu zien urpien, ezta?
- Bai, bai, bai. Billerlen baiño igual beste leku batzutan gehixau. Billerlen baiño, bai baten batzuk baina ez horrenbeste be. Beste herri batzutan hor herrixe osue be bai, herrixe osue be bai. Beste herri batzutan, bai.
- Elosu ta Nafarreten-ta.
- Bai. Ha ezautzen dozu Nafarrete ta Elosu-ta? Bai. Ba Elosu bera goixen dau baia hor Nafarreten ta ba hor behien etxe batzuk, baina beste herri batzuk dauz hor hondiñon gehixau harrapau dauzenak. Urrunaga be bai, gehixau harrapau dau. Beste herri batzuk dauz gehixau harrapau daurenak.
- Ta lagunik edo euki zendun han? Etxie galdu zabenak?
- Hor ez, hortik ez, ez. Hemekuekaz gu orduen, urten be ez gendun iten iñora be ta. Hemen autobus bat egoten zan Gasteizera joateko bat goixien ta beste bat etorteko. Ta hementxe, hementxe ibilte gintzezan.
- Oiñ be holan dau.
- Bai, bai, oañ be holantxik dau. Ba ordun kotxiek be gutxi egoten zien etxietan be ta, bizikletie-edo, ibilte gintzezan fiestetara, Billerlera-edo. Oiñez be joan ta, oiñez etorri be bai ta, danera, danera.

5.5. Tranbiaren ibilbidea astiro

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/046
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 01:49:01. **Bukatu**: 01:51:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena**: Tranbia astiro ibiltzen zen, bertatik martxan jaisteko beste. Jaietan bagoiaren kanpoan zintzilik joaten zen jendea. Zeanuritik Bilbora geltoki askotan geratzen zen tranbia.

Transkripzioa
- Ta ba tranbixok hor gabeko hamaikak arte-edo ibiliko zien, hamabixetara arte-edo ibiliko zien, honantza, honantza. Akordetan naiz ni bai bai, hor tranbixok hor ibilte zien, bai. Ta gero be ba iñoz ibili naiz ni tranbixen, sarri bez baia bai, bai, ibili naz, ibili naz tranbixen. Astiro ibilte zien horre danok. Ta martxan dauzela bajatu be iual ite zien, ta ba halan ibilte zien. Ta gero noizik behiñien baten bat zapaldu be bai ta horre danok, bai. Martxan

dabizela be bajatu-ta, holan ibilte zien. Ta gero ba hor jente asko egote zanien edo fiestak edo ha o bestie, han albotik be han jute zien kabidu barik, holan hobatute. Kabidu barik, barruen ta kanpotik be bai jute zien, yasta!
- Hobatu nunun-ta.
- Bai, hobatu hainbaten ta yasta.
- Ta zenbat pagetan zendun, akordetan zara?
- Asko ez zan izingo, ez dakit, ez dakit. Ez dakit, ez dakit hoixe zenbat pagetan zan. Hoixe ez dakit, enaz akordetan, asko ez zan izingo baiña bueno. Ba izingo zan oingo klasera, ba bardin antzera, orduko diruetan. Orduko dirutan oingo klasera izingo zan.
- Ta nun geldittute zan, Zeanurin hasten zan ta nun geldittute zan?
- Ba gero hor ba parada asko eukite auen. Bueno, ba Zeanurin hasiko zan, Zulibar da hango beste eskolak dauzen lekue, han be bai, gero handik, ba Villaron be parauko zan. Gero Villaron be leku biten-edo parauko zan. Gero ba hor danien parau ta parau, Bilbora allau orduko! Ta gero hango makinistiek ez auen kobretan, gero izin da hori, ba kobradorie ibilte zan, kobradorie ibilte zan, bai. Ta horren taillerrak egote zien han Lemoan, Zornotzako bidie dauen hantxe, oin autobusek lehen pareten izien dien lekuen, oingo autobusek, ez die paretan izin hantxe? Han Zornotzako bidie dauen lekuen, hantxe bertan ez da egon taillerren bat? Taillerrak-ta egon izin die ba lehen, hantxe-hantxe paretan zien tranbixen zeron, hartu-emonok han eukite aurezan. Bai, han kontuek ta han ite aurezan.
- Ta umiek ordaindu in ber izete aurien tranbixe edo debalde?
- Ez dakit horixe.

5.6. Tranbia aterik gabe

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/047
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 01:51:31. **Bukatu**: 01:53:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Tranbiak beti zapaltzen omen zuen bidaiariren bat. Berogailurik ez zuen tranbiak, eta ateen ordez kateak zituen. Gaur egun oso gutxitan ixten ditu etxeko ateak, baina garai batean pentsatu ere ez zen egiten hortaz.

Transkripzioa
- Orduen esan dozu jentie zapaldu be bai, berton harrapau izen dabe?
- Bai, bai, bai. Bai, noizik behiñien hageitik o haretik zapaldu bai. Harek zapaldu ezkero, harek zapaldu ezkero, harek burdiñak? Harek burdiñak zapaldu ezkero. Ta han ez zan egoten ez kalefakziñorik ta ez berorik ta ez hotzik. Dana harek aurrien holango han aurrien ez zaukien aterik be, katea bat eukite auen holantxin, holan katie, ta katiek eukite auezen aurrien. Han ez auen eukiten aterik be. Ta katie sartute zan holantxe akordetan naz, katea lodi bet, beste alderdixen sartzen zan holantxi ta yasta. Harek ez auen eukiten aterik be han
- Freskue.

- Bai, ez zan eongo berotasun haundirik! Han ez zan eongo berotasun haundirik.
- Ta etxiek, etxiek eukite eben giltzak-eta?
- Ba hemen nik oantxe be ez doaz itxiten atiek. Hemen ibilten die batzuk atiek itxite, baiña ni joate banaz ba haren batea giltzie hemen behien itxiten dot goikue, goikue. Baiña hemekue dana dau zabalik, ba itxiten doaz aldiko baten baia zabalik eoten die.
- Ta lehen, antziñen zelan zarratzen zenduen, edo zelan zabaltzen zenduezan atiek, ze eukitzen zenduen?
- Ba giltza haundi bat
- Giltza haundi bat?
- Bai. Ta pentsau bez itxiteik. Gure amenien-ta be atie itxi? Ez dakit zetako be! Aitu dozu? Pentsau bez! Ez zan egoten ostuteko ezebe, baia bueno. Etorte zien aldiko jitanon bat, ta eote zan giltzie, baia. Ba oin be hemen ibilten die batzuk atiek itxite, han Bibianan etxe inguruen be, harek karterak ta danak, atiek ta itxite daukiez e? Ta joten dozu atie ta goitik begituten dotsue lehenengo.
- Lapurretaatik?
- Lapurrek dabizela ta bai. Nik gabien eukiten dot bildurre hemen? Eukiten dot bildurre nik be gabien.

6. Familia eta harremanak

6.1. Dantza lotua libre Ubiden

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/031
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 01:13:19. **Bukatu**: 01:15:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Nebak eta biak izan zituzten euren bizikletak. Ubiden festa onak egiten ziren. Legutio eta Otxandioko jaietara ere joaten ziren. Ubiden dantza domekero egoten zen. Zeanurin ez, baina Ubiden dantza lotuan egitea libre zen. Horrek jende asko ekartzen zuen Ubideko dantzara. Dantzak mutilek ordaintzen zituzten, eta hori erakusteko ordainagiria paparrean eramaten zuten.

Transkripzioa
- Ta bizikletie eukitzne zenduen?
- Bai, bai, bai.
- Zeuona?
- Bai, nire nebiek be bai ta nik be bai.
- Ondo, hori asko zan, ezta?
- Bai, nahikua zan bai, nahikua zan.
- Ta esan dozu fiestak-eta, nora joaten zinien zuek?
- Otxandixora, oiñez, oiñez, ta Billerlia, Bitorixa ez, ez, ez. Otxandixora, Billarlia.
- Ta hemen Ubiden?

- Hemen fiesta onak ite zien! Fiesta onak ite zien hemen, bai.
- Ta zer egoten zan?
- Ba hemen, ba musikie ekarten auren, akordeoiek ta jazzbana ta ez dakit zer ta badakit zer ta, bai, bai.
- Ta nor egoten zan soiñue joten?
- Ba fiestetan kanpotarrak , ta ostantzien bertako mutil batek be jote auen. Ta dantzie domeka guztixetan egote zan!
- Domekero.
- Bai, bai, bai, fiesta ta domeka haren zeaz urten iten gendun, ostantzien ez gendun urtetan, urten in /biu/ biher dogu ta orduen andrak ta taberna ta ez zien juten ta! Oin gabiz tabernan danok.
- Eta, jantzan ibiltzen ziñien domeketan eta, ta libre zan?
- Hemen bai, ta sin enbargo Zeanin ez! Hemen bai, ta hemen ite zien fiestak ta be onak, ze Zeanin ez auren itxiten jantzan agarrauen, ta hemen bai! Ta hemen hona etorten zien Zeanuritik be fiestetan ta.
- Agarraue itxen.
- Bai, bai, bai.
- Eta, ordaindu in biher izete zenduen?
- Mutillek pageta auren zeoer, bai. Ta gero fiestetako be mutillek.
- Mutillek ordainddu, andrak ez.
- Andrak ez. Andrak ez auren eukiten dirurik sekulen ta! Orduen.
- Ta mutilek ordainduten ebien ze, plaza sartu aurretik edo noz?
- Ba kobretan ibilten zien papela ipinite hemen, kobretan ibilten zien.
-T a ze jartze otsien, txapatxu bat hemen?
- Bai, ba hortoko papeltxo bat orratzagaz.
- Papel bat iziten zan.
- Bai, papela, papela.
-Ta zelakoa izete zan hori papela-edo?
-Ba txiki-txikixe, holangoxie bakarrik.
-Kolore diferentekoa edo?
-Ba igual urte baten kolore batekua, hurrenguen beste batekue ta holan. Hori jaixetakue.

6.2. Bekatuak konfesatzen ezberdintasunak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/050
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 01:58:03. **Bukatu**: 01:59:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Emakumeek konfesatokiaren albotik aitortzen zituzten bekatuak. Gizonezkoek, berriz, aurretik, abadearekin aurrez aurre. Emakumeak eta abadearen artean sareta bat egoten zen konfesatokian.

Transkripzioa
- Ta lehen abadie komentau dozu don Martin esan dozu
- Bai.

- Eta konfesetan eta, joate ziñien?
- Bai, bai, danok joate gintzezan konfesetan. Ta ba holan Aste Santue zanien-ta illadan, ba konfesonarixue hemen ta haraiño illadie. Ta gu barreka ibilte gintzezan han konfesau egunien, ba ha urten ta neskatuek han danok olgetan. Bat lehenau dala, bestie lehenau ez dala ta olgetan ibilte gintzezan.
- Eta zelako lekue izite zan konfesonarixoa?
- Ba elizan egote zan, zuk ez dozu ikusi konfesonarixorik ala?
- Bai, baia.
- Oin hemetik be kendu daurie, ze elizie arreglau daurenien, ba batien usteldute egon zala ta ba apurtu ta bota daurie. Ta oin hemen “confesión comunitaria” eiten daurie. Lehengo egunien be esan auen abadiek, gure badau ba batan batek konfesau ba konfesako dauela.
- Baia gure dotena esan da, neskak konfesetako lekue eta mutillek konfesetako lekue bardiñe zan?
- Ez, gu albotik, neskak albotik, ta bestie gizonak erditik, abadiaz “cara a cara”.
- A ta zuek ez otsezuen aurpegixe ikusten?
- Ez, ez, “más o menos” ba jakiten gendun nor dan ta zer dan baia bai, bai
- Baia berak zuei ikuste otsuen
- Ba baite, baite, ze holango rejillie egoten zan-ta, ba ikusko eben / ikusikoen/, ikusko eben /ikusikoen/.
- Ta konfesionarixue bardiñe izeten zan.
- Bai, bai, bai.
- Ta zelako penitentzixek jartze otsuezan?
- Ba Aite Guriek hamar edo sei-edo errezetako ta hortoko batzuk, hortoko batzuk, besteik ezebez.

6.3. Zaragozara ezkon-bidaian

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/058
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 02:16:29. **Bukatu**: 02:19:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Traje beltzarekin ezkondu zen Abelintxu. Ezkon-bazkaria etxean izan zuten, eta ezkon-bidaian Zaragozara joan ziren hiru asterako.

Transkripzioa
- Ta ezkondu? Zu zelan ezkondu ziñen?
- Ba elizan.
- Baiña jantzitxe ta?
- Ba orduko denboran be hortoko etiketa handirik hemen ez zan ibilten, ba normal, trajetxo batiaz.
- Ta ze kolore?
- Ba baltza orduen, bai, baltza.
- Ta zelakue izen zan zure ezkontzako egune, goizin goizetik, pelukerixara joan ziñen eta?

- Bezperan, bezperan Bitorixara. Bezperan, pentsaizu! E! Ba hortoko kontuek zien, lehen ez zan egoten pelukeririk bez, ez ezebez ba bezperan.
- Bezperan joan ta hurrengo egunien zelakue izen zan?
- Ba hurrengo egunien ba ezkondu ta bazkaixe, etxien iten zien orduen bazkaixek! Hemen. Ta etxien bazkaixe in ta ba yasta!
- Eta biajien joan ziñen?
- Bai, Zaragozara. Bai, bai. Ba orduko jentie ez zan joaten horrenbeste be, baia ba jun nintzen ta kito.
- Ta zelan joan ziñien Zaragozara?
- Ba Bilbotik trenien. Bilbotik trenien. Ta bueltan be etorri Bilbora trenien. Yasta. Ba ederto, ederto. Ta Zaragozan ordura arte ez nintzen egon Zaragozan ta han zerien be eleizan han ukusten egon nintzen ta ba han dauzela bonbak gerra denboran sartu zienak be gordeta egon zien, han eskegite. Sartu zirela ta ez aurela in ezebe, kalterik ta ez, han dauz eskilaratxo baten eskeite. Ta ba hoixe danok, bai. Oso ondo.
- Zenbat egunetarako joan ziñen?
- Hiru aste, asko zan, asko .
- Gaur egun be asko da!
- Bai, bai. Gaur ez, gaur juten die hemendik Ameriketaiño! Hemendik Ameriketaiño!Ba orduen ba bueno.
- Ta zenbat denbora tardau zendun Bilbotik Zaragozara joaten?
- Ez dakit. Ez dakit, ez dakizu? Ba jun da yasta, ez dakit, ez dakit zenbat denbora izingo zan be!
- Ta han ze egon zinen, hotel baten-edo? Edo etxeren baten?
- Ba han hotel txikitxo baten, ta han lo in ta gero egoten gintzezan jan geuk gure lekuen. Geuk gure lekuen, bai.
- Ordun dirutxue euki zenduen?
- Ba nik ez, baiña gizon horrek pagau auen ta kito! Orduen andrak ez auren eukiten holan dirurik. Bai, bai, ba holan zan, baiña horrenbeste be ez gintzen ibilko, ba normala jaten, ba zeoze jan, bai, bai.
- Jentie Donostira ta joaten zan ta Bilbora!
- Bai, bai.

6.4. Gaztetan Bilbon eta Getxon asko ibilitakoa

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/059
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 02:19:05. **Bukatu**: 02:22:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Oporrak
- **Laburpena**: Bilboko izekoren etxera sarritan joaten zen. Barrakatan ibiltzea asko gustatzen zitzaion. Negurin neskame zeuden izekoekin joaten zen Algortatik hondartzara. Amak kartak azkar eta ondo idazten zituen. Bere edadeko jende gutxi zegoen hainbeste eskola zuenik.

Transkripzioa
- Ba ni Donostire, ba Bilbon asko ibilitakue nintzen, ze ni izekoenara ta joan naiz asko, barraketara. Ba zuk ez dakizu izen hori, ba Sabino Arana dauen lekuen, orduen zan “Avenida de Jose Antonio”, ta han egoten zien barrakak,

ta barraketara ni asko joan naz! Ta hargatik nik Bilbo ezetuten dot bastante ondo, ondo ezetuten dot. Barraketara asko joan naz izekoenera ta, gazte-gaztetatik hasite. Ta Algortara be esan dotsutena, hara plaiara jun naz ba nire izeko bat, bi egon ziren kridxeda Negurin. Ta Neguri bidiek be nik jakin noazen. Ze ibili nazelako, Bilbon ta izekuek eduki dodazelako. Barraketara ni asko joan naz, bai.
- Ta barrakak ze egoten ziren ba, egunero han?
- Ba ni han izikuenien negon hamabost egunien edo barraketara junde.
- Baiña barrakak beti egoten zien, urte osoan?
- Ez, uden, uden. Uden, baiña ostantzien be juten nintzen. Ta autobusien juten gintzezan hemen, ta han aiuntamentuen egoten zan autobuse, “La Unión” ibilte zan orduen be, ta paradie han ba aiuntamentuen egoten zan erdi-erdidxen holan egoten zan ba hortoko redondel bat ezebe bakue, ta hantxe paretan zan autobuse “de La Unión”. Ta haraxe joate gintzezan, ta bajatu be hantxe ta hartu be hantxe. Ta yasta. Ta gero handik izekok urteten osten. Ta yasta. Ta ba gero ba gure amak be ba ordun telefonoik ta ez geunken eukiten, ta izekuek bez, baiña ba eskribimientuekaz ebilen “en primera fila”. Gure amak zutunik eskribite auen, hainbeste eskolan ibili zen bere denboran ta! Ta orduko denborakue ta falta barik ta eskribiten auen e? Ta nahikue zan orduko denborakue! Ta berak hori eukite eban ba bere buruen. Ba hil zen oantxe hemeretzi urte, ta eduki ebazen laurogeita hamalau urte terdi, ta bere buruen eskribimientuekaz egoten zan zur! Jun medikuena Bitorixa, ta kamionetai-ta “trin-trin-trin” leituten otsien, bera hortan egoten zan ba pozik! Ze bere edadekuek eskolarik ta ez daure jakin herridxetan. Ta berak asko jakin, ta egoten zan elegante, bere buruen, bere buruen! Ta buruen jakiten auezan ba “gramatica española” ta buruen jekite auezen ba abadie etorte zan hemen zapatu-domeka guztidxetan ta ba “la gramatica es el arte de leer y escribir correctamente la lengua española”, tapa-tapa esate otsezen, ta “zelako burue dekozu!” esate otsen. Bai. Ta ba estudiau biherrekue zan baiña orduen dirurik ez ta, ezebez! Ta diru bakuek ezebez.
- Hori ez lehen ez oin.
- Ta oin bez, oin bez, oin bez, oin bez.

7. Aisia

7.1. Felix akordeoijolea

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/032
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 01:15:33. **Bukatu**: 01:17:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Domekatan Felix Lekuek jotzen zuen akordeoia. Aukera ona bazen, domeketatik kanpo ere jotzen zuen Felixek tabernan.

Transkripzioa
- Gero domeka guztixetakue hemeko mutil batek joten auen ta emoten otsien zeozer ta ba mutillek.
- Ordun mutillek emoten otsien soiñu-jotzailliei dirue.

- Bai, bai.
- Ta nor zan ba hori, Ubideko hori?
- Ba ointsu hil da, ointsu hil da. Felix Lekue zan ta ointxe hil da, ointxe urte bi hil da. Ta ha zan alegrie bera ta ba hor ibilten zan akordioi horriaz jo ta jo, ta oin be atzen-atzenien txarto egon da, baiño lehenau be tabernan be fiesta apurren bat egon ezkero atate auen akordeoie, ataten auen.
- Ta zelako kantak kantate ebazen?
- Ba, nik zer dakit ba, betikuek, betikuek. Betikuek, ta nire aite zan dultzaiñie joten eban bai, ta hor Etxaguenen-ta ibilte zien Andres-edo, zer zan, San Agustiñetik Etxaguengo festetan, ta hortik basotik juten zien ta basotik juten zien ta ba San Agustiñetan ta ba joten auren joten auren dultzaiñie, ba zeozer, ekixenak eta gero beste lagun batek be jute zan ta: “zer joko juk oin ba?” ta ba: “lehengue”. Besteik jakin be ez auen ingo ta, aitu dozu? Ta nire aite ta iziten zien ba afizionauek eta ez zan egongo besterik be ta jun, ta gero ba pagau ta ez otsien iten, afaixe, gure aitei-ta. Handik basotik juten zien, ta ba afaixe. Ba “a la juerga”, pagau ta ezebez. Zer pagauko otsien ba hiru-lau etxe dauzen lekuen?
- Bueno, afarixe, nahikoa.
- Bai, afaixe ta juergie.
- Jan ta edan ingo eban.
- Bai, bai.

7.2. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/049
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 01:55:29. **Bukatu**: 01:58:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Saketan (tortoliska), korroan eta gorde-gordeka jolasten zuten umetan, besteak beste. Neska-mutikoek elkarrekin jolasten zuten. Pilota jokoa gustatzen zitzaion, baina ez zuen pilotarik jolasteko. Ubiden ez, baina Zeanurin bazegoen frontoia.

Transkripzioa
- Guk, “al burro”, ta saketan zuk ez dakizu zer dan. Saketan asko neskak. Ba eukite genduzen horrek hazurrek ardixenak hemekuek, hemeko atzekuek. Ta gero ba ha holan apur bat batzuk aukite aurezan. […]
- Saketan.
- Ta ba saketan, saketan da seiseka ipinten da hemen hola bota ta gero hola txikitxu bet, ta “cara-cruz” ta gero ez dakit zer, ta holan bolie gora botaten dan artien, ba buelta emun biher jako /bixako/ honi. Sakie da hemeko hazurre, ba politek die horrek danak bardin-bardiñek eta, ba holan. Ta hartantxe, ta gero “al corro” ta “al escondite”-ta ba holan olgetan gendun.
- Ta neskak eta mutillek danok batera?
- Bai, bai, bai, ibilte gintzezan batera, bai. “Al burro” ta danera.
- Ta pelotan-eta?
- Pelotan-eta euki dot gana bat nik beti ikisteko! Ta ez dot euki pelotarik be

ta ez ezebez, ta gero ibilte gintzezan pelotan be ez zan egoten frontoirik hemen, ta ibilte gintzezan han Madalenako horman apur bet, baina ez gendun eukiten iñok be pelotarik ta be ezebez, ezebez, badakizu zer dan ezebez? Ezebez.
- Mutilek be ez zien ibilten.
- Ez, ez. Ta holan ibilte gintzezan, zeozertan, “al burro” edo “al escondite”- edo, ba holan.
- Eta pelotan orduen gustetan jatzun.
- Bai, gustetan jatan, ta ezin ibili, pelotaike ez, ezebe.
- Ta hemen sasoien urten zan holan pelotaririk edo zure sasoien edo gaztetan edo?
- Ez, ez.
- Ta frontoirik bez?
- Ez, frontoie nire akorduen dau einde lehenengokoz.
- Ta Zeanin be ez zan egon frontoirik?
- Zeanin bai, Zeanin egon isin da frontoie, bai.
- Ta han ez zenduen olgetan?
- Hara zelan joango gintzezan ba gu umetan. Umetan zelan joango gintzezan ba hara?
- Amumanea juankeran.
- Bai, baña amama bizitze zan gora, zein de Altzuste dau goixen ta frontoie behien egon zan. Hara errekauetan ta joate nintzen ni. Pentsau bez olgetarik, ta orduen neskatuek ez zien ibilten frontoien. Pentsau bez, pentsau bez ibilterik.

7.3. Santa Ageda eta San Blas

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/067
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 02:35:09. **Bukatu**: 02:37:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
  Aisia » Jai-giroa » San Blas
- **Laburpena**: Umetan Santa Ageda ospatzen zuten. Soldadutzarako kintoek festa handia izaten zuten egun horretan. Ipiñaburuko Santa Agedako mezara joan zen behin. Lehen, San Blas egunean kordelak, artaburuak eta abar eramaten ziren bedeinkatzera.

Transkripzioa
- Eta gero, lehen komentau dozu jaixena berba eitten egon garenien Santa Agedak.
- Santa Ageda ez dot komentau, baia Santa Ageda iten da hor Ipiñaburun, hemen. A ta Santa Agedak hemen ibilte zien batzuten. Ta sobretodo mutillek. Umetan bai, neu be bai, baia gero, umetatik gero ia nausiten neskak ez zien juten ia hemen, mutillek bakarrik. Ta gero, mutillek juten zien Santa Ageda horrek soldau […]. Ta soldau jun biher dauen kintuek juten zien Santa Ageda, batu ta fiestie terriblie eiten auren hurrengo goizera arte, tabernatan egoten zien. Ta gu umetan jute gintzezan ta gero etxen baten eiten gendun tortillie edo hortoko zozer, tortilla ta, ba beste flanen bat-edo, ba hortokon bat ingo oskuen, hortokon bat ingo zan Santa

Agedatan. Ta gero Santa Agedan badau hor, Ipiñaburu, badakizu non dauen Ipiñaburu? Ta hara be jun naz, baten edo jun naz hara. Santa Ageda dau han hotz bat egon zan, horti oiñez jun gintzezan hemetik basotik, ta hotz bat. Ta han Santa Agedan mezie egon zan da besteik ezebez. Santa Agedan mezie eon zan ta atzea jun de erun gendun maletie han tabernak eta badauz han Undurran ta tabernak eruan gendun maletie ta buelta, gazte-gaztetan.
- Ta San Blasak-edo?
- San Blas hemen ez da iten, ez, ez. Ba mezata, bedeinkatuten, bedeinkatuten eruten dauz ba kordelak eta lehen, oain kordelik eta ez ezebez. Ta ba karamelon batzuk-edo, galletak-edo, lehen artaburuek-eta eruten zien zerentzat, behixentzat eta oiluentzat, artaburuek.
- A bai? Baia ze, San Blas egunien?
- Bai, artaburuek erute zien. Artaburue badakizu zer dan?
- Orduen ganauentzat ta animalixentzat be bedeinkatzen zien San Blasetan?
- Baite, bai bai, artaburuek eta karameluek eta gailletan batzuk-edo.

8. Natura

8.1. Azerien kalteak eta ardien gaitzak

- **Hizlaria(k)**: Olano Olibares, Abelintxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: UBI-005/040
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 01:32:50. **Bukatu**: 01:35:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna » Basoko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Azeri asko egon omen zen garai batean. Ardiak hiltzen zituzten azeriek. Neguan artzainak ardiekin egiten zuten lo erasoak ekiditeko. Kokaldia, gibeleko arrak eta ardien beste gaitz batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Eta azerixek esan dozu ordun lehen ugeri egoten ziela.
- Asko, asko hemen.
- Eta ardixeri zer, kalte asko?
- Ba harrapau ta hil iten dauriez.Ta nire aitek ez auen ba iñoz ba zera, azerixe ala otsue jamoten egon zala baten aldika baten negu baten asko asko, ba negu hotza ta gabien egoten ardixen onduen! Ze gabien etorten dire horrek-eta. Bai, hortokuek pasetan ziren hemen, ta azerixek lehen asko, ta gero ibili zien ba, pagaute kazeixek-ta honekaz, oin azeri gitxiau egon biher da hurrien. Baina oin be bai egoten die azerixek hor honek mutikuok ta daukie etxie hor baso onduen, ta nire semiek, ta hara azerixe oiluek harrapetan etorten da. Bai, azerixe zuhur ibilten da.
- Eta lehen esan dozu ardixen hori, gaixotasune zelan esan dozu urtetan jakiela?
- Kokaldie, ez esan hemen, ez dakit izena benetakue zein dan!
- Bai, eta gaixotasun gehixau be ezautzen dozuz, holan ardixenak zienak?
- Ba esate auren daukela, ba hori zan hemen bultue urtetan otsien, ta gero nik ikusi dot gibela be, horrek gaixuek egote zienak holan apur bat hil bai,

ta gibelien harrak esate otsie, harrak esate otsie, ta gibela zabaldu bai holan ta ez zan jaten holan. Zabaldu bai holan ta ibilte zien honan mobiduten, “unos aplastaus, aplastaus”. Zein de hau atzazkalan modukue edo holakuek? Ta mobidu eite zien honan. Ta ha gibela holan egon ezkero, ba gero trabau eingo ziren. Ze zuk gaur lo nahiko ez dozu ein e? Lo nahiko ez dozu ein. Ba gero esate aurien eukiela ba beste bat be, ba ez dakit nik, murmue edo be bai ta, ba holan. Ta gero beste batzuk zoratute moduen be plantetan die. Ta saltoka jausi ta holan be eiten daurie, bai. Bai, gaixuek be danetik dauz. Bai.
- Ta? Gaixorik jartzen diezen ardixek zer, hil eta lixto?
- Ba holan txarto badauz ez, baia ostantzien apur bat holan zoruek ez daure eukiten zera haundirik, zoruek ta lodi egoten die, ta horrek makal dauzenak ez daurez hilten. Horrek beste zoro antza dauena ha hilten daurie, ze gero txarrau plantauko da ta hil, ta ba jan, baia honek beste gaixo makaldute dauzenak eta ez.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Kapanaga Arantzazun egin zen Euskeraren Jatorria Elkartearen I. Biltzarrean (UBI-007/001)

Euskeraren Jatorria Elkarteak Kapanagari eta Imanol Mujikari egin zien omenaldi zela-eta ezagutu zuen Bittor. Bisitatzera joan ziren Otxandiora; bere obra aztertzen hasi eta oso interesgarria iruditu zitzaien. Arantzazun egin zen Lehenengo Biltzarrera eraman zuten. Oso aberasgarria izan zen biltzarra. Harrezkero zortzi biltzar egin dira. Asko ikasi dute tarte horretan; esaterako, irekita egon behar dela ideia berrietara. Kapanagak, zenbait arlotan, sinonimia dagoela ikusita, zenbait erro kanpotikoak izan daitezkeela esaten zuen. Iz,ur, -gar... Segurola, Zubiaga eta beste batzuk ere jardun dute azterbide horietan eta goraipatzekoa da euren lana ere.

2. 'Euskera' zaharragoa eta jatorragoa 'euskara' baino (UBI-007/003)

Bittorrek esaten zuen 'euskera' zaharragoa dela 'euskara' baino, hor daudela 'hizkera' eta abar. Eta Euskaltzaindiak hautu okerra egin zuela 'euskara' eta 'erdara' aukeratzerakoan. Kontuan izanda gainera kanpoko hizkuntzak izendatzerakoan -era hautatu zela: sumeriera, egiptoera... Ugazabaren etimologiaz: ugatz + ama.

3. Aurrera egiteko beharrezkoa da atzera begiratzea (UBI-007/004)

Bittorrek erakutsi zigun aurrera joateko beharrezkoa dela atzera begiratzea. Churchil-en esaldia; eta dantzarien esaera: "Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu". Gure arbasoek bizitzari nola aurre egin zioten ezagutzen badugu, tresna ezinhobeak izango ditugu etorkizunari aurre egiteko.

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com